

ANALISIA

Dutxa hotza Glasgowtik

MIKEL ZUBIMENDI BERAŠTEGI > 4

NORA SALBOTX, irakaslea:

«Hezkuntzaren gaineko nazio akordio baten premia nabarmena da» > 22

2021eko azaroaren 20a | XV. urtea • 749. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



FRANKISMOAREN PEAN ASKATASUNARI KANTATU ZIOTENAK

Goiko irudian, Peio eta Pantxoa eta Etxamendi eta Larralde, 1970ko hamarkadan, Sarako ostatu batean. > 12 Daniel VELEZ



Analisia: Dutxa eskoziarra
Glasgowtik 04

Sudan, udaberri arabiarren
azken(-aurreko) alea? 07

Camp Humphreys, AEBen
gotorlekua Korean 08

Frankismoaren pean askatasunari
abestu ziotenak 12

Zer ikusi, hura ikasi: «Haurren
aurrean helduok heldu» 17

Elkarrizketa: Nora Salbotx 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Filosofiaren alde, kulturaren zientziaren alde
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Antropozenoko biztanleok
- 11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Sagueseko adierazpena haize eta olatu artean
- 20 **Gorka Zozaia:** Bizitzaren giltzak
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Oheko eszenak
- 26 **Amaia Ballesteros**
- 27 **Maidier Iantzi Goienetxe:** Zen, da eta balitz
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** Aingeruen sexua
- 30 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Abortu(a)k

{ datorrena } Iñaki Soto

Filosofiaren alde, kulturaren zientziaren alde

Espainiar hezkuntza lege berriak Filosofia ikasgaiak bigarren hezkuntzan dituen orduak eta garrantzia gutxien dituen enegarrenez. Ondorioz, Estatuan kanpaina bat antolatu da, #endefensadelafilosofia eta #ESOesfilosofia ardatzen inguruan. Gurean ere izan du oihartzunik. Gainera, ostegunean, azaroaren 18an, Filosofiaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta ospakizunak aldarrikapenekin nahastu ziren. Protestek kutsu korporatiboa dute, halabeharrez, baina gizarte zibilaren babesa lortu dute, filosofiaren alde egotea logikoa baita.

Argudiaketaren aldetik, ildo desberdinak irakurri ditut. Alde batetik, kanpainan parte hartzen dutenek nerabe eta gazteei eskatzen zaizkien gaitasunen parte handi batek filosofiarekin zerikusi zuzena duela esaten dute. Balioez ari dira, nagusiki, baina baita arazoei aurre egiteko gaitasunez ere. Irtenbide egokiak topatzeko, lehenik eta behin arazoak zuzen azaldu behar dira.

Zentzu honetan, filosofia-rik gabe belaunaldi hauek aurrean dituzten erronkei erantzutea ezinezkoa izango dela defendatzen dute. Aldaketa klimatikoa, identitateak, aniztasuna, desberdinkeria, adimen artifiziala, demokrazia, autoritarismoaren eta askatasunaren arteko talka... Auzi hauetako askotan azken berriak eztabaida klasikoe-kin batzen dira.

Tamalez, ikerketa horiek unibertsitatetik kanpo gutxi zabaltzen direla esango nuke. Pandemian ikusi da: orokorrean, herritarrok hartu behar izan diren erabaki politikoek atzean dituzten eztabaida bioetikoei buruz baino askoz gehiago ikasi dugu biologia bezalako zientzia gogorrei buruz. Zientzialariek esfortzu itzela egin dute dibulgazioan. Baita beste zenbait aditu eta arduradunek ere (medikuak adibidez).

Aldiz, filosofoek ez dituzte beren ekarpenak gehiegi zabaldu. Pentsa, azken hilabete hauetan euskal jendartean

eztabaidagai izan dira, besteak beste, triajea ZIUetan, txertoen derrigorrezkotasuna, mugimendu askatasunen murrizketa, haurren eskubideak, botere judizialaren, exekutiboaren eta legegilearen arteko talka, datu pribatuaren bilketa masiboa, arriskuaren gizartea, desazkundearen bideragarritasuna... Garai hauetan, ondo pentsatzea, zorrotz eta argi, oso garrantzitsua da. Eta eztabaida hauetan guztietan, apenas egon da pentsamenduan adituak direnen ekarpenik. Norberak bere programarekin eta bere agendarekin jarraitu duela dirudi. Agian, guk ere ez dugu horiei ahotsa ematen jakin.

Jakina, kritika hauetaz harago, diziplina gisa filosofia babestu behar dela uste dut. Jarduera gisa, espazio gisa, prozesu gisa... kulturaren zientzia gisa, filosofia herrien eta humanitatearen garapenean lanabes baliotsua da.

Solemnitatea eta fribolitatea
pentsamendu hari beraren bi muturrak
dira. Russellek salatzen zuenez,
handitasuna sarri hipokrisiaren
ezkutalekua besterik ez da

Kazetaritzak ezartzen duen egunerokotasunaren esklabotzatik ihes egiteko, tarteka nire filosofo kuttunak irakurtzen ditut. Ergela ez izaten laguntzen duten pentsalariak dira: Bertrand Russell, Joxe Azurmendi, Angela Davis, Isaiah Berlin, bell hooks.... Adibidez, gogorarazten didate solemnitatea eta fribolitatea pentsamendu hari beraren bi muturrak direla. Russellek salatzen zuenez, handitasuna sarri hipokrisiaren ezkutalekua besterik ez da. Horiek guztiak zorrotzasunarekin eta argitasunarekin konbatitu behar diren okerrak dira, umore puntu batekin ahal bada. Ez da erraza. Ondo pentsatzea ez baita erraza, ez baita espontaneo, ezta bakarkako lana ere. Komunitatean ematen da eta lana eskatzen du. •

Betikoa gertatu da, espero zitekeena: batzuentzat etsipena, besteentzat anbizio mugatuko aurrerapausoa. «Ia nahikoa aski nahikoa» akordio bat dela, arrakasta takiko bat dela batzuentzat. Eta besteentzat, atzerapauso estrategiko bat dela gizateriarentzat, klimaren aldeko mugimendu eta ekintzaileek pilatuta zeuzkaten esperantza eta aurreikuspenekin alderatuta gutxienez bai. Ekintza erradikalagoen falta dagoela,

egin dezakete. Herrialde gehienek 14 orrialdeko azken txostena «ulermen historiko» baten fruitua dela esan digute, «garaipen hauskor» bat dela, aldean arteko «lan gogor eta elkarkidetzaren» emaitza posible bakarra.

Hitz jokoak

Akordioa, lehen irakurrian, hitz parrastada bat da, desioen zerrenda bat, alarma eta kezka askoren adierazpen bat. Interesa piztu du, bai; Eta esperantzak atzarri ditu, baita

ere. Are, une eta puntu batzuetan, baikortasun indusitu bat puztu du.

Hitz jokoak ere badauzka, neutralak ez diren hieroglifikoak. Gogora ditzagun batzuk: «Iktatzaren desagerpen progresiboa eta erregai fosilei dirulaguntzak ezabatzea» proposatzen zen lehen zirriborroan. Eta zientzia argitalpen askotan «hitza nabarmentzekoa» zela irakurri genuen, lehen aldiz NBEko klimaren inguruko erabaki batean espresuki aipatzen zirelako erregai fosilak. Baina, azkenean, azken txoste-

nean, beste hitz batzuekin irteera bat eskaini zaie ikatza bizi-bizirik mantendu nahi duten herrialdeei.

«Phase out» versus «Phase down» hitzekin gertatu dena adibidez, lehenengoa desagerrarazi bigarrena txostenean azal dadin. Sinonimoak ez badira, hortxe-hortxe dabilta; lehengusu propioak diren espresioak dira. «Ezabatu» versus «progresiboki bertan behera utzi», edo halako zerbait. Hots, pixkanaka gutxitu. Malgutasun elastiko bat bilatzen duten aldaketak dira, sartzeko

{ analisia } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Dutxa eskoziarra Glasgowntik

erregai fosilen ekoizpena amaitu edo ekonomia etengabeko hazkundetik aldentzea bezalakoak. Ez direla legalki loteslea izango zen akordio batera iristen saiatu ere egin, eta, besteek, harrituta, «zer uste zenuten ba?» galdera, «AEBak, Txina, India eta beste asko gai honetan delitugile arruntak direla ez al zenekiten?» galderaren aurretik.

Glasgowko COP26 klimaren aldeko gailurra mundua «hondamenditik salbatzeko azken aukera» bezala aurkeztu zen. Eta bere misioa argia zen: «Klima aldaketari aurre egiteko mundua batzea». Hitz potoloak, edonondik begiratuta ere. Hitzek, baina, zepo zorrotzak, kateatzeko hizkuntza bat edo kaiolatutako definizioak eskain ditzakete. Ekintzarako askatasun batez edo utzikeria edo permisibitate batez hitz

«Herrialde bakoitzak berea», horra Glasgowntik ateratako mezua, «nirea dena nirea da, eta, zurea, guztiona».

Frustrazioak pilatu dira. Legeak, elkartasunak eta zientziak baino gehiago berekoikeriak, botere politikak eta emozioek agintzen dute. Kausa komunik ez dago, eta planetak erretzen segitzen du.

edo ateratzeko atea zabalik beti uzten dutenak, isurtzen eta ekoizten dutenentzako beti pronto.

Eta ez aipatze horren arrazoiak badakizkigu, omisioaren zinismoa ezin ezkutatuzkoa da. Adibideak franko daude. AEBak bezalako herrialdeek, esate baterako, petrolio eta gasarekiko beren interesa elikatzen jarraitzen dute, negozioa dagoen bitartean irabazia lege, Trumpek egin zuen berdina egin dezakeelako Bidenek, «baina hobeto», begiarentzat berdeago, multilateralago.

Eta India pozarren, garapen bidean dauden herrialdeen bozeramaile egin omen delako. Eta mezua pasatu duela: bizi eredu berrien faltan, neurritasunak gehiegikeriari gain hartzen ez badio dena pikutara joango da. Eta hori ez gertatzeko, jakina, ikatzari

lekua egiten jarraitu behar zaiolako.

Glasgowko akordioaren melodia gozoa izan da munduko ikatz esportatzaile handiena den Australiarentzat. Eta ez dute ezkututzen poza: «Ikatzak irabazi du Eskozian». Ekoizle diren herrialdeei maniobrarako tartea uzten zaielako, eta «ezabatu edo ezabatu» espresuki ez jasotzea ikatz meategi berriak zabaltzeko argi berdea bezala ulertu duelako. Zinismo totalaz aurreratzen dute: lurra zulatzen segituko dugu eta «munduko ikatz onena» saltzen jarraituko dugu, pobreziatik milioika pertsona ateratzeko bide bakarra delako.

«Zuriketa berdea»

Glasgowtik munduratu diren prentsa ohar eta teletipoetan

esan digute, esan digutenez, ezinbestekoa dela berehalako erabakiak hartzea, urrats eraldatzaileak egitea eta konpromisoak betetzeko neurri eta mekanismoak zehaztea, mende amaieran Lurraren berotzea ez dadin 1,5 gradu baino handiagoa izan. Eta anbizio handiko helburuez hitz egin digute, 2050erako karbono neutraltasuna lortu nahi dela; isurtzen den beste karbono dioxido xurgatzeko gaitasuna izatea, alegia.

Eta aitortuko dute, aitortu dutenez, 1,5 graduen helburua zaurituta eta oso minberatua atera dela Glasgowntik, baina ez kexatzeko eta kontu egiteko: oraindik bizirik dago. Egia dela jende eta herrialde asko zur eta lur gertatu direla, erabat harrituta, azken akordioak pairatu duen subertsioagatik, lobb-

yek antolatu eta obratutako subertsioagatik. Eta gaineratuko dute denek dauzkatela kezkak, kontzientziazin-tzilik, dilindan. Baina ez ditzagula egin harrituaren edo haserretuaren plantak, hala izan delako beti, herrialde boteretsuek egin dituzten promesak desagerrarazteko, diluitzeko, aukera izan dutela beti. Botereen aldeko presio taldeek beren trikimailluak egin dituztela, beste behin, berriz ere, beti bezala.

Ekintzaileentzat, Greta Thunberg klima aldaketaren hondamendiaz ohartzen gaituen gaztetxo mediatikoa buru, Glasgowkoa ez da klimaren aldeko topaketa bat izan. Munduko komunikazio talde handi eta ospetsuenetan «zuriketa berdearen akelarre globala» izan dela esango dizute. Eta ohartu gaituzte ere:

zuriketa berdearen ondoren betiko martxan segituko da, espezie bezala desagertpena garamatzen bide berean. Eta, gainera, prestatuak egoteko, hitzontzi iruzurtien ahalegin gehiago etorriko direla.

Presio taldeak


Ebidentzia bat badago hala ere, eztabaidatu ezin daitekeena, nolabaiteko autoritate bat ematen diona Glasgowko ahaleginari: ia-ia munduko gobernu guztiek parte hartu dute. Berekoikeria, zinismo eta zuriketa berde guztiak gorabehera, ahalegin komun baten zentzua eta atentzio global baten lekukotza badaude. Eta horrekin batera, ia gai guztietan, ezina nabarmentzen duen pasatu ezin diren marra gorrien mapa. Erregai fosilekin adibidez, he-

Ekintzaile gazte bat Glasgown izan diren protestetan hartutako irudian. Andy BUCHANAN | AFP



rrialde eta erakunde multzo handi batek uste du munduak ez dituela erregai fosilak gutxitu behar, ez bederen planteatzen ari den bezain azkar. Eta saudiarabiarrek diruz hornitutako lobbyek «eskala guztietan, ekintza urgente eta azkarrak behar dira» esaldia txostenetik kentzeari ekingo diote. Eta munduko ikatz esportatzaile handienak, Australiak, «ikatz energia plantak ixtea» defendatzen duen konklusioa ezabatzearen alde presio egingo du. Eta Indiak, ikatzaren munduko bigarren kontsumitzaile handienak, erregai fosilak bere menuetik kentzeak ekarriko lituzkeen «desafio itzelegiak» aipatu eta ez du halakorik sinatuko.

Eta zeozer sinatzekotan, karbono dioxidoa harrapatu eta betirako lur azpian biltegiratzeko teknologia gares-



Nazioarteko gailurraren anfitrioi izan den Boris Johnson lehen ministro britainiarra topaketetara sartzen. Phil NOBLE | AFP

berdintasunak eta justiziak beste aukera bat itxaron beharko dute, Mendebaldeak mende batean karbono dióxidoa isurtzen aritzean izan dituen erantzukizunen ordainik ez da inon ageri.

Zinismoa tonaka

Nuklearra bai? Galdera horren oihartzuna ere ibili da Glasgown. Europa Ekialdekoek, Errusiako gasaren etorreraren arabera era bateko edo besteko negua izan ahal duten herrialdeek, txostenak energia nuklearrarekiko ikuspegi positiboago bat izan behar duela aipatu dute, energia honek NBeko kli-

tien alde egin beharko litza-tekeela esango dizute, teknologia hauen alde ikerketak finantziatuko dituztela. Eta jarrera horretan ikusi ditugu Saudi Arabia, Txina, Australia eta Japonia –denak erregai fosilen ekoizle edo erabiltzaile handiak–, baita petrolio ekoizleen klu-ba ere, Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea. Aldarrikapen argi batekin: karbonoa harrapatu eta lur azpian biltegitratzeak errotik moztuko du argindar planta eta hainbat industriaren gas isuria.

Saudi Arabia nabarmendu da lobby jardunean, ezkuta-tzeke, ezertaz lotsatzeko. Eta publikoki eskatu du, munduko bazter guztietan entzun dadin, ebazpenetik des-agertu behar dela esaldia, asmo oso bat: «Energia sis-

tematan deskarbonizazio ahaleginak bizkortu behar dira lehenbailehen zero karbono isuria duten iturrietara jotzeko, erregai fosilen desagertu progresibo bat aktiboki bultzatuz», halako-rik onartuko ez dutela.

Topera aritu da Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea. Errenta estraktibistaren negozio eredu-a defendatuz, honen kontra etorkizunean har litezkeen ekintza politikoen aurrean ezkutu bat eskuratzeko.

Gai guztietan berdin

Eta soluzioa haragi gutxiago jatea balitz? Galdera pausatu da Glasgown, eta berdin. Brasil eta Argentina atera dira bidea moztera, haragi produktuetan eta pentsutarako laborantzian munduko

ekoizle handienetakoak direlako. Eta ideia-aren aurka jo dute errotik: haragi gutxiago jateak ez du zertan lagundu berotegi gasen isuriak gutxitzen. Eta Brasilek bere indar osoa jarriko du konklusioen txostenetik «Mendebaldekoen dietarekin alderatuz gero, landaretan oinarritutako dietak %50 gutxitzen du berotegi gasen isuria». Eta Argentinak bere indarra «okelari zerga bat» ezartzeko ideia txostenetik desagertu dadin, edo «Haragirik gabeko Astelehenak» kanpaina globalaren aipamen txiki-ena ere ez agertzeko. Hego Amerikako bi erraldoiak, eskutik helduta, «txorakeriatan ez ibili» mezua pasatu dute Glasgowko korridoreetan: «Eztabaida ekoizpen sistema ezberdinen isuri mailen

ingurukoa dela eta ez jaten den janari motarena».

Edo diruaz mintzatu gaitzeko, herrialde pobreei hitzeman zitzaie diruaz. Eta Suitza buru, banku askoren egoitza eta oso aberatsak diren herrialde askok emendakinen zaparrada planteatuko dute. Kopenhageko 2009ko Klimaren Konferentzian onartu zen herrialde aurreratuek urtero 100.000 milioi dolar emango zietela garapen bidean daudenei 2020tik aurrera. Helburua ez da bete. Ez dago herrialde pobreetan klimarekin zerikusia duten hondamendiek sortutako kalteak eta gale-arak konpentsatzeko mekanismorik, ez dago isuri- en inpaktuak eragindako bide- gabekeriak onartzeko bo- rondaterik, ez asegurutara- ko funtsik, ez ezer. Klima

ma helburuak lortzeko ezin- beste beste papera jokatzen duelakoan. Beste adibide bat, 2040tik aurrera zero isuriko ibilgailuak bakarrik saltzea erabaki dute 34 esta- tuk, baina akordiotik kanpo gelditu dira ibilgailu gehien kontsumitzen dituzten he- rrialdeak: AEBak, Txina eta Japonia. Baita Espainia, Frantzia eta Alemania ere.

Finean, tonaka zinismo- ren artean, gauza asko bista- ratu dira Glasgown. Planeta salbatzeko sistema aldatu baino lehen, balioa duen orori prezioa jarrita plane- taren geroa saltzea nahiago duela sistemak. Zientziaren egiak baino, lobbyen presio eta eslogan politikoe- k pisu handiagoa dutela erabakie- tan. Lekutan daudela denon ongia, kausa komuna eta gobernantza globala.



AFP

IKUSMIRA

SUDAN, UDABERRI ARABiarARREN AZKEN(-AURREKO) ALEA?

Zortzi urte geroago iritsi ziren sudandarrak 2011ko Udaberri Arabiarrera. 2019an bota zuten 30 urtean agintean egon zen Omar al-Baxir. Oposizioa Armadarekin akordio batera iritsi zen trantsizioan boterea tarte-katzeko. Baina aurten argi ikusi da autokrata sakrifika-tu behar izan zuten militarrek ez zeudela inolaz ere

herrialdea zibilen eskuetan uzteko prest. 2013an Egipton gertatu zen bezala, pasa den urriaren 25ean estatu-kolpea eman zuten, eta lehen ministroa kargutik bota eta bere etxean atxilotu zuten. Ordutik hona jendea kalera atera da gobernua zibilen mende egon behar dela aldarrikatzeko. Milita-rrek Internet eta telefono sarea moztuz eta tiroka erantzun diete manifestariei, dozenaka hildako (aste honetan 15) eta ehunka zauritu eraginez. Badirudi errepresioak eta Sudanen isolamenduak matxinadari amaiera eman diezaioketela. Herrialde arabiarren esperantzak berpiztu zituen udabe-riaren amaieran ote gaude? Azken matxinadan? Ala azken-aurrekoan?

AEB-EN GOTORLEKUA KOREAN

Camp Humphreys base erraldoia, Ipar Korearen aurrean

 **POLITIKA** / Andres Sanchez Braun (Efe)

AEBek kanpoko lurretan duten base militar handiena Ipar Koreatik 100 kilometrora dago. Oraindik bukatzeko dago Camp Humphreys basea, baina prest dagoenean, datozen asteetan, 40.000 lagun baino gehiago biziko dira eta lan egingo dute bertan. Pentagonoak Seul inguruan dituen base guztiak lekualdatzeko eraiki zen base erraldi hori eta, gerra oraindik teknikoki ez dela bukatu gogorazten badu ere, AEBetako soldaduek gogoko duten destinoa da.

AEBek kanpoko lurretan duten base militar handiena, Camp Humphreys, 2018. urtean inauguratu zen Hego Korean, eta gaur egun, osatzear badago ere, penintsula oraindik teknikoki gerran dagoela gogorazten duen oroigarri indartsua da.

«Fight tonight» irakur daiteke letra beltz handitan Humphreysen han-hemenka agertzen diren ur dorreetako batean. AEBetako herri txikiak gogorazten ditu, tankera horretako biltegiak baitituzte.

Lelo hori –«Gaur gauean borroka» esan nahi du– Infanteriako Bigarren Dibisioaren leloa da, Ameriketako Estatu Batuetako Zortzigarren Armadako atal nagusiarena. Bertan dauka, hain zuzen, bere kuartel nagusia, eta bere eginkizun behinena Hego Koreako lurraldea defendatzea da, Ipar Korearen «inbasioaren» aurrean.

Defentsa horrek, leloak adierazten duen bezala, etengabe-ko prestakuntza eta zaintza eskatzen du, Piongiangen posizioak iparralderantz 100 kilometro eskasera daudelako.

Horretarako, Humphreysek bere 14,3 kilometro koadroetan aktibo motordunentzako entrenamendu eremu balioa-

niztun bat du, Asian lurreko armada estatubatuarraren jarduera handiena duen aerodromoan.

«Disuasio militar sinesgarria ematen dugu eskualdean edozein mehatxu edo arerioaren aurrean», zehaztu du Lee Peters koronelak, Koreako Estatu Batuetako Indarren (USFK) bozeramaileak, aste honetan Efe agentziak basera egindako bisitaren hasieran.

«Camp Humphreys ia osatuta dago, %85ean bukatuta, eta urte amaierarako %90etik gertu egotea espero da», gehitu du Petersek, eta gaur egun 32.000 pertsona inguru bizi direla eta bertan lan egiten dutela adierazi du.

Bukatuta dagoenerako 40.000 edo 45.000 izatea espero da, Camp Humphreys zaharretik oso urrun, Pyeongtaek herriaren ondoan (Hego Koreako hiriburutik 60 kilometro hegoaldera). Seulek eta Washingtonek gaur egungo basea bertan ezartzea adostu zuten 2004an.

Helburua zen Seulgo iparraldean edo hiriaren bihotzean bertan zeuden instalazio militarrek lekualdatzea eta biltzea, Piongiangek mugan dituen artilleria unitateen tiramenean geratzen zirelako.

Horixe da Yongsan kanpalekuaren kasua, orduan USF-

Kren kuartel nagusia eta Nazio Batuen Komandoa (UNC) zena, eta hori itzultzeak 2 kilometro koadroko espazioa berreskuratzea ekarriko dio Seuli.

URTEGIARI TOKIA KENDU

Humphreys zaharra ipar-mendebalderantz hedatzeko, Ansong ibaiaren deltaren ondoko zingira handi bati tokia kendu behar izan zioten.

«Hondarrezko bi mendilerroren baliokidea behar izan zen», azaldu du Stuart Mayer Australiako almiranteordeak. 2019tik UNCKo komandanteordea da.

UNC da Koreako Gerran (1950-53) hegoaldeari babes

eman zion AEBek gidatutako koalizioa –gaur egun 17 herrialdek osatua–, eta oraindik konpondu gabe dagoen gatazka hau bertan behera utzi zuten su-etena sinatu zuten hiru aldeetako bat da (beste biak Ipar Koreako tropak eta Txinako Boluntarioen Armada dira).

Bake adierazpen bat sinatzea, duela gutxi Hego Koreako Gobernuak berriro bultzatu duen proposamena, lehen urratsa izan liteke UNCren existentziari amaiera emateko. «Ez ginen sekula komando iraungiezin bat bezala ezarriak izan; helburu argi batekin eratua baizik: eskualdean bakea eta segurtasuna berrezartzea,

Camp Humphreys AEBetako base berria, 2018an zabaldua eta oraindik bukatu gabe dagoena.
AFP



eta behin hori lortuta, agintaldia desagertu egingo litzateke», dio Mayerrek.

Australiako militarrek argitu du bake itun bat beharko litzatekeela (juridikoki loteslea, adierazpen bat ez bezala) UNC desegiteko, eta azpimarratu du garrantzitsua dela Washingtonek eta Seulek adierazpen horrek izango lukeen esanahia eztabaidatzen jarraitzea.

Humphreysen sarrera nagusian bisitariari harrera egiten dioten Patriot misil bateria ilarak pentsarazten du penintsulan bakea ofizial egitea oraindik aukera urruna dela.

«Ez dago zalantzarik Ipar Korea misilen ahalmena in-

dartzen ari dela», adierazi du almiranteordeak. Piongiangek basera iritsi zenetik 32 jaurtiketa egin dituela azaltzen du eta horietatik bost irailean eta urrian egin dituela.

Basean bizi eta lan egiten dutenentzat paradoxikoa da Humphreys berria 2018an zabaldu zenean -14 urteko garapenaren ondoren-, Ipar Koreako artilleria dagoeneko bigarren mailako mehatxua zela. Izan ere, epe horretan Piongiangek kuartela jotzeko ahalmena duten misilak egin ditu.

«Ahalmen militarren handitzea ikusten ari gara mundu osoan, eta baita eskualde honetan ere», adierazi du Petersek. Hala ere, bere ustez, base hau «ezkutatutako altxorra» da, soldaduek eta haien familiak nahi duten destinoa.

Ezinezkoa da Chinook edo Apache helikopteroen zaratari entzungor egitea Humphreysen, edo ibilbideen izenak Armadaren dibisio ezberdinen ezizenak direla ez konturatzea.

Hala ere, etxebizitzak dorreak, eskolek, 27 zuloko golf zelaiak, gimnasioak, janari azkarrereko jatetxeek, parke akuatikoak edo zinema aretoek oso bestelako bizimodua irudikatzen dute, «american suburbia» delakoa edo, basean esaten duten bezala, «etxea etxetik urrun».

Camp Humphreysen, gaur egun, 32.000 pertsona inguru bizi dira eta hantxe lan egiten dute. Bukatuta dagoenerako 40.000 edo 45.000 lagun izatea espero da

Base berria eraikitzeke helburua zen Seulgo iparraldean edo hiriaren bihotzean bertan zeuden instalazio militarrek lekualdatzea eta haien baliabide guztiak biltzea



AEBetako Estatu Saileko ordezkaria Hego Korean bisitan. Kim MIN-HEE | AFP

AMERIKETAKO ESTATU BATUEN BASEAK ITZULTZEKO PROZESUA ABIAN DA BERRIRO

AEBek lau base militar itzuli dizkiote Hego Koreari: Wonjuko Eagle eta Long kanpamentuak; Bupyeongeko Market kanpamentuko lursailak, eta Dongducheongo Hovey kanpamentuko Shea tiro eremuaren lursaila. Denak 2009-2011 aldian itxiak. Humphreys base erraldoian joan den abenduan adostu zuten itzulketak egiteko prozesua berrirori abian jartzea, urteetan geldirik egon baita deskontaminazioaren eta inguruaren garapenaren aldetik zituzten desadostasunak zirela-eta. Seulen erdialdean dagoen Yongsan basea itzultzeko prozesua ere hasi da. Base hau garai batean Korean Estatu Batuetako Indar Armatuen (USFK) egoitza nagusia izan zen. Haren tokian parke nazional bat eraikitzeke egitasmo erraldoia prestatu dute agintari korearrek. Pentagonoak baseak itzuli baditu ere, oraindik deskontaminazioaren ardurari buruz eta instalazioen ingurumen kudeaketari buruz eztabaidatzen jarraituko dute bi aldeek. Seulek AEBen 26 instalazio militar entregatzeko prozesua bizkortu nahi du, gehiago atzeratzeak dagoeneko hutsik dauden baseak deskontaminatzeko ahalaginak eta eskualde garapenaren aurreikuspenak zaildu ditzakeelako. Azken hitzarmenaren ondorioz, hegokorear askok Yongsan lurralde osoa berreskuratzea espero dute. Inguru hau atzerriko indarrek menderatu izan dute historian zehar, baita Japoniak ere, penintsulan Tokiok ezarritako erregimen kolonialean. USFK-k 1957an kokatu zuen kuartel nagusia Yongsanen, Koreako Gerra bukatu ondoren.





Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Antropozenoko biztanleok

Ez nuen Sestaoko musika eskola ezagutzen, Santos Zunzunegi arkitektoak 1912an diseinatutako eraikin ederra. Egiari zor, ez nuen Sestao bera ere ezagutzen, eta apur bat lotsagorritzen nau hau aitortu beharrak, zinemazalea Kubrick-en “2001: A Space Odyssey” ikusi ez duela aitortzeak lotsagorritzen duen moduan, distantziak distantzia.

Arratsaldeko seietan zen hitzordua. “Mugak” bienalaren baitan, Miriam Garcia eta Joan Roig arkitektoek “Euskarria bizi-ziklo gisa. Paisaia berreskuratzea” solasaldian hartu zuten parte, idazten duen honen gidaritzapean.

Hasierako hipotesia garbia da, antropozenoko biztanleok bi erronka garaikide zail ditugu esku artean: aldaketa klimatikoa eta biodibertsitatearen galera. Eta beraz, aurreko belau-naldiko arkitekto eta hirigileekin konparatuta, testuinguru honetan lan egin behar dugun, eta etorkizun hurbilean egingo duten (aretoan ikasle

dezente baitzen) profesionalok agenda aldaketa hori kontuan hartu behar dugu. Diseinatzeko orduan bereziki, baina baita bezeroekin lehentasunak adosterakoan ere.

Miriam Garcia LandLab bulegoko sortzailea da eta, beste hainbat gauza-ren artean, “Kostaren metamorfosi sintetikoa. Paisaia erresilienteak diseinatz” tesi sarituaren egilea da. Tesian, itsasoaren mailaren hazkundea-ren aurreikuspenetan oinarrituta, kosta eremuetan lan egiteko hainbat gako eskaintzen ditu. Bartzelona inguratzen duen Besos ibaiaren ahoan egindako proiektu bat erakutsi zuen, arkitektura eta paisaia ulertzeko modu berriak zeintzuk diren erakutsiz. Eskoilera eta hondartza artifizialen orde, elementu askoren segida: euri-lorategia, bioerretentzioa eta drainatzea, euste-dikea, areka berdea, zola-dura drainatzailea, *Cymodocea* zelaia eta beste hitz berri asko.

Garrantzitsua da hitz berriena, kontzeptu berriena. Batlle i Roig bulegoko

Roig-ek, izenez Joan, Ingeniari Agronomoen fakultatean klaseak eman zituen garaia aipatu zuen. Klaseak emanagatik, eta arkitekto izaki, asko ikasi zuela agronomoen artean; eta horrela errazago ulertzen da aurkeztu zizkigun proiektuen dotorezia. Haien proiektuak ikusita, errazago ulertzen dira EAEko planeamenduan aipatzen diren hainbat kontzeptuk izan dezaketen forma finala: korridore eta azpiegitura berdeak, ekobulebarak, ekosistemak zerbitzuak eta abar.

Bereziki interesgarria da diskurtso hau Sestao bezalako plaza batean entzutea, bere kontraesanak azkar geratzen dira-eta agerian. Nola uz-tartu eskualde oso baten eraldaketa ekonomiko postindustrial, hura egituratzen duten azpiegitura fisikoen garrantzia eta euskarri naturalaren berreskuratzea? Ezkerraldeko ibaiadarrak ikustea besterik ez dago, autobi-deek inguratuak, are itoak, erronka honen konplexutasuna ulertzeko. •



ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Sagueseko adierazpena haize eta olatu artean

Presaka idatzi behar izaten da batzuetan, orrialdeek ziererako ordu bat dutela, gai potoloetan sartzeko gogorik eta denborarik gabe. Baina potoloak diren eztabaida eta kontuekin aritu bazara minkideekin, burutik ezin badituzu kendu, ba haria bertan bilatu eta haritik tiraka eta tiraka idazten duzu. Atzokoa egun ederra izan genuen Donostiako Sagueseko txoko horretan, itsaso harro-harroa, horizonte sakona eta zeru ilun baina batere tristearen konpainian. Gazte garai-ko, betiko lau minkidek egin genuen hitzordua, eta bizitzaz baino, atzokoan, zuzen-zuzenean ekin genion politikaren sesioari. Gustura, konfiantzan, aurreratu dugunaz eta aurreratu beharko genukeenaz, atzeratu dugunaz eta atzean utzi ditugun atzera-bueltarik gabeko galbideez. Ezker abertzalearen eztabaidaz eta eztabaidatzeke dauzkagunez.

Ez nuen datua gogoratzen. Atzamarrekin kontatuz atera genituen kontuak: kongresuak, birfundazioak, "Abian", "Zutik Euskal Herria"... hamar urtean, zortzi eztabaida! Esanguratsua iruditu zitzaidan. Eta itsasok hondarreratzen dituen

olatuak berdinak ez izan arren, kresala bera, errima bat badela aipatu genuen. Baita egoen eta erresuminen apar moduko bat ere, tximinoa jantzita guapo-guapo izan nahi duten orangutanak ere badaudelako.

Ederki ibili ginen, bai. Eta gauza asko ikasi nituen. «Pomaditisa» gaitza adibidez, «pomadan sartuta» ez egoteak batzuei eragiten dien ezinegon existentzial horrena, eta barre egin genuen. Eta hitz egin genuen 28ko adierazpenaz, Aietetik etorritako haizeteaz. Batek alde, beste batek ez hainbeste, nor bere arrazoen defentsan sutsu, baina denok lagun, etxearen defentsan leial. Batek aldebiko eskeman ulertu duela, bestek gure herria ikusten duela hartzaile nagusia, eta gure konbentzimendu, analisi eta erabakiak dituela indar, pasio betean bota puntua. Presoen egoeraz eta gaia lehenta-

sunetan lehen egiteko premiaz aritu ginen, estrategia bat bere potentzialtasun guztian hedatzeko garaian motxila batzuek daukaten zamaz.

Euskal Herriak benetan behar dituen eztabaidak ez direla antikapitalismoa, adultokrazia eta halako distrakzioenak. Serio eta maila emanez jardun behar dela, esentziak transzendituz, txikimunduetan gozo, zuloan sartuta egotea gure egoera naturala ez dela barneratuta. Plaza publikoaren erdian dagoela gure lurraldea eta anbizioa. Belaunaldi berriei konfiantza eman eta arriskatzera animatuz, agian Arkaitz Rodriguez eta Eneko Anduezenak, agian bai, agian lortuko duelako.

Eta agian aliantza politika berriak ernalduko dira; eta herri bezala maila igoko da; eta UPNren lekuan ikusiko du EAJk bere burua. Eta euskalgintzarekin euska-

Esentziak transzendituz, zuloan sartuta egotea gure egoera naturala ez dela barneratuta. Plaza publikoaren erdian dagoela gure lurraldea eta anbizioa

rak dauzkan arazoez mintzatu ahal gaitzek, natural, zorrotz, euskal identitatearen erronkez. Edo irakaskuntzan programatu behar den eraldaketaz, edo gure industriaren kinka larriez. Askoren artean, desberdin askoren artean, sintonia berriak landuz eta zabalduz.

Horrela joan ginen laurok Urumean gora Norteko geltokiraino, gozo-gozo politikaz hitz egiten. Eta nor bere bidean jarri baino lehen, hurrengo hitzorduaren arduraduna erabakita, ados agurtu ginen. Handiak egin eta handiak egiteko gaudela, badaudela zuztarrak olatu eta haizeteei eusteko. Ipar Euskal Herriko dinamikekin liluratuta, Nafarroan zabaldu diren leihotatik begiratzuz, herriarekin beti eta bat, conforme agurtu ginen. Batzuk herri batzarrera, bestek ume zaintzara, denak hortxe, lagun eta prest. Aberriarekiko pronto. •

FRANKISMOAREN PEAN ASKATASUNARI ABESTU ZIOTEN KANTARIEN BALENTRIAK

Idoia ERASO

Frankismoan kantu bidez borrokatzeko sortu zen Euskal Kantagintza Berria taldeko Ipar Euskal Herriko abeslariari buruzko liburua idatzi du Colette Larraburuk: «Francoren mende kantatzen genuenean». Garaiko kantarien hitzak bildu ditu idazleak, eta elkarrekin mintzaldi-kontzertuak eskainiko dituzte abendutik goiti.



Abeslari hauek inoiz ez dute euren burua heroitzat hartu, baina nik erraten dut Joan Baez abeslariaren ia anai-arrebak direla, zeinek erraten zuen kantua gure armategi ez-bortitzeko armarik boteretsuena dela. Beraien borrokatzeko era zen, eta gaur egun ere jarraitzen dute borrokatzen», azpimarratu du Colette Larraburu idazleak bere liburuko protagonistei buruz. Heroiak ez direla baieztatu du, momentu batzuetan egindakoak balentria handiak izan baziren ere, Francoren diktadurapean Bidasoa zeharkatzen baitzuten euskaraz Euskal Herriaren askatasunari buruz, torturez... kantatzeko, lagun zituzten Hego Euskal Herriko abertzaleen begiradapean. Liburua frantsesez Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztu zuten urrian, eta euskaraz Durangoko Azokan aurkeztuko da abenduaren 5ean, mintzaldi-kontzertu batekin.

Anekdota zein baino zein ederrago, tristeago edo bitxiagoak atzeman daitezke liburuan; horietariko batzuk, inoiz entzun gabekoak. Euskal Kantagintza

Ezkerretara, Colette Larraburu idazlea. Alboan, errefuxiatuek eta militanteek 1973an Baionako katedrala okupatu zutenekoa. Bertan Gabonetako meza izan zen, Marcel Mendiboure kalonjea ere hantxe zela.
Daniel VELEZ

Berriko abeslariak elkarriketatu ondoren, horrela azaltzen du idazleak garai horretako egoera eta izpiritua: «Ezberdintasun handia zegoen bi aldeetako ikuslegoaren artean, Hego Euskal Herrian diktaduran zeuden, eta toki bakarra zen non horrelako kantuak euskaraz entzuten ahal zituzten, abestu eta beraien haserrea erakutsi. Anitzetan oso gaizki bukatzen zen, 'grisak' metrailekin ailegatzen ziren, kantariak metrailetak bizkarrean zituztela abesten zuten, eta bukaeran handik atera behar izaten zituzten ezkutaturik. Badakit Etxamendik eta Larraldekin behin baino gehiagotan Hego Euskal Herriaren beste puntan atzeman zutela beraien burua, atxilotuak izan ez zitezen, eta Peio eta Pantxoa zuzenean atxilotuak izan ziren. Benetan baldintza oso zailak ziren, baina egiten jarraitu zuten, euska-

ra atxikitzeko, eta euskal gizartea kontzientziatzeko».

Istorio horien guztien berri izateko, testigantza ugari bildu ditu Larraburuk, gehienak liburua idazteko garaiko protagonistekin mintzatuz hartuak, baina lehenago egin zituen elkarriketa batzuk ere erabili ditu, bereziki orain gure artean ez diren artistenak. Peio Ospital, Pantxoa Carrere, Joanes Borda, Beñat Sarasola, Panpi Lacarrieu, Pier Pol Berzaitz, Eneko Labeguerie eta Eñaut Etxamendi izan ditu mintzakide, baina zendu aitzin Manex Pagolari egin zion elkarriketa hartu du abiapuntutzat. Helene eta Xabi, Eñaut Larralderen seme-alabak izan ditu testigu, eta Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Maite Idirin, Imanol, Roger Idiart edo Robles-Aranguiriz familia ere lehenagoko adierazpe-
nen bitartez presente dira obran. Testi-

gantza grafikotzat har daiteke liburuan agertzen den argazki bilduma ederra. Irudi gehienak Daniel Velez argazkilari ezagunarenak dira.

TESTUINGURU HISTORIKOA

Kantu batzuetako hitzak oso gogorrak direla baieztatzearekin batera, testuinguru historikoan kokatu behar direla azpimarratu du kazetariak, eta horren erakusle liburuan agertzen diren zenbait pasarte aipatu ditu: «'Itziarren semea' esaterako; baina garaiko frankismoaren testuingurutik, prismatik, irakurri behar da, oso gogorra zen. Telesforo Monzonek idatzi zuen Andoni Arrizabalagaren historian oinarrituta, eta kontzertu batean Arrizabalaga bera eszenatokira igo zen beraiekin kantatzera, emozio izugarria izan zen».

Peio eta Pantxoak bizi izan zuten beste pasadizo bat ere nabarmendu nahi izan du, Donostian eman zuten kontzertu batean gertatutakoa. Juan Paredes *Txiki* zenaren anaia beraiek ikustera joan zela kontatu zioten Larraururi: «Bere anaiaren exekuzioaren bezperan berarekin egoteko eskubidea izan zuela esan zien, eta hark esan zio-la beraiek ikustera joan behar zuela, eta esan behar ziela bere kantari gustukoena zirela, eta abesten jarraitu behar zutela, euskararen eta euskal herriarren alde. Gaur egun oraindik, horri buruz mintzo direlarik, negar egiten dute, elkarrizketatu nituelarik negar egiten zuten, oso gogorra izan zelako, ez dute sekula ahantziko».

Kontzertuen kokapena ez zen gaur egungoa bezalakoa: «Ikusi behar da non izaten ziren kantaldiak, balkoi batean, edo plaza txiki batean... baina parean beti ehundaka pertsona zeuden beraien kantuak abesten: 'Itziarren semea', 'Elosegiri'... herria aitzinean zuten kartsutasun handiarekin». Borda, Sarasola eta Lacarrieuk osatzen duten Guk taldeko kideek kontatu zioten hiru kontzertu egiten zituztela gau berean: «Bat eszenatokira gainean (inprobisatu



txiki batean), bigarrena gauerdia eta gero ostatua, eta hirugarrena karrikan, zoramena zen».

Kontzertu bat emateko baimena izatea konplikatu izaten zen. Peio eta Pantxoari baimen hori lortzeko desmarta administratiboak Xabier Letek egiten zizkien: «Berak debekatua zuen kantatzea, baina ministeriora joaten zen paperak eramatera. Batzuetan probintzia batzuetan debekatua zuten kantatzea, eta beste batzuetan ez. Guk taldekoak, ez dira ongi oroitzen, baina Bordak bere etxean errefuxiatuei lan ematen zenez hango norbaiten bitartez izaten zela pentsa daiteke».

Baimena lortzeko, beste gauzen artean, kantuen zerrenda eman behar zen: «Peio eta Pantxoak esan didate hamar kantuetarik bederatzi zentsuratuak izaten zirela, beraz momentu batetik aurrera abesbatzen kantuen hitzak edo kantu zozoenak ematen hasi zirela, horrela baimena eskuratzen zuten, eta gero tokian berean bestela egiten zuten».

Aldarrikapen politikoez gain, beste gai batzuek ere ikuspegi engaiatua ematen zuten, esaterako, Manex Pagolak idatzi zuen «Urtxintxa», Ipar Euskal Herriko lehen ikastoletako baten sorraren kariatara egin zuena: «Haurrek errexxi kantatu ahal izateko sortu zuen, eta gaur egun ere ikastoletan



Guk taldeko kideak «kantzerki» bat eskaintzen taula gainean. Azpian Maite Idirin abeslaria kantari, Euskal Kantagintza Berriaren taldearen baitan emakume bakarrenetarikoa izan zen.
Daniel VELEZ

kantatzen da». Kantu horri loturik, belaunaldiz belaunaldi abesti horiek duten ibilbidea aipatzean, duela gutxi gertatu anekdota bat kontatu zuen irribarretsua Ospitalek Sarako aurkezpenetan. Eskola batean kantuz ari zirelarik, haur guztiak eserita begira zituztela ume bat denen artean altxatu eta amari garrasika hasi zitzaion erranez gizon horiek ere kantu hori ezagutzen zutela.

«Gero ez da uste behar beraien kantu guztiak engaiatuak zirenik, Manex Pagolak idatzi zituen kantu gehienak,



baina jendeak gehienak Telesforo Monzonenak direla uste du, berak idatzitako zazpiek arrakasta handia izan zutelako», gaineratu du idazleak.

JENDARTE EZBERDINAK

Ipar eta Hego Euskal Herriko egoerak oso ezberdinak ziren, eta elkar ezagutza oso txikia zen. Pier Pol Berzaitzek Larrabururi kontatu zion ez zekiela Pirinioen bestaldean ere euskara mintzo zenik. «Joanes Borda Itsasukoa da, Nafarroa Garaiarekin muga egiten duen herria; bestaldekoak espainolak zirela esan zioten beti, eta egun batean bertara joan zen, eta han beraien hizkuntza bera mintzatzen zutela deskubritu zuen, batzuk guztiz harrituak izan ziren hori deskubritu zutenean».

Euskarari eta abertzaletasunari loturiko kontzientziazioa beranduago hasi zen Ipar Euskal Herrian: «Hemen kantaldiek jendea erakartzeko denbora anitz behar izan zuten, gizartea oso klerikala zen, euskal independentistak ‘abertzale zikinak’ ziren, irratian debekatuak ziren, pixka bat denean zentsuratuak... Kantaldiak hedatzen joan ziren herrietako festa komiteek gonbidatzen hasi zirelarik. Baina ikuslegoa oso ezberdina zen, askoz pasiboagoa eta ez hain kartsua».



Gizarte klerikal horretatik atera ziren, hala ere, talde horretako ia kantari guztiak: «Denak seminariotik pasatukoak ziren, Pier Pol Berzaitz eta beste baten bat kenduta». Garai horretakoak dira liburuan lehen aldiz deskubritzen diren pasadizoetako asko:



Franco hil zelarik Baionako karriketan izan zen alaitasuna.
Artisten elkarretaratzea: idazleak, musikariak, kantariak elkartu ziren Baionako katedraleko kalostrepean.
«Estitxu» Estibaliz Robles-Arangiz Bernaola kantaria, «Beskoitzeko urretxindorra» ezizenez ere ezagutzen zena.
Daniel VELEZ

«Han egin zuten topo, eta hor hasi ziren. Garaiko mundu euskaltzalea hor zegoen, seminarioetan. Eliza oso gogorra izan zen beraiekin baina horri esker bilakatu dira direnak. Lehen euskarari eta euskalduntasunari buruzko errealitate horiek guztiak ez zituzten ezagutzen, eta han ikasi zituzten zenbait apezten bitartez».

Piarres Lafitte, Roger Idiart, Piarres Xarriton... apaizak izan ziren kontzientzia iratzartze horren sustatzaileak: «Batzuek beste aldera eramaten zituzten. Adibidez, Arrasateko kooperatibak bisitatzera eraman zituzten, herri bakar bat ziren kontzientzia izan zuten ordutik goiti. Horregatik erabaki zuten kantatzea, ez bakarrik euskararendako, baizik eta herri bakar bat garen kontzientzia



Ezkerraldean, Telesforo Monzon, Askatasunaren Ibilaldian, 1977an, Aratzurin, milaka pertsonarekin batera. Peio eta Pantxoaren abesti askoren egilea da Monzon. Eskuinaldeko irudian, Eñaut Etxamendi Baionako kartzelaren aitzinean kantatzen.
Daniel VELEZ

zabaltzeko, herriari bere hizkuntza eta bere duintasuna bueltatzeko».

Garai horretan hasi zen Michel Labeguerie kantatzen gitarra soilik lagun zuela, Euskal Kantagintza Berriaren aitatatzat hartua den abeslari lapurtarra entzun zutelarik, euskarazko musika bestela egiteko era bazezuela ikusirik, beraiek ere bide hori hartu nahi izan zutela dio idazleak, baina nabarmen du, halaber, hori ez zela arrazoi bakarra izan: «Eta erran behar da denak artistak direla, hori ez da erreza! Horrek ekarri zuen eztanda hori».

Pirinioen iparraldean problematika ez zen guztiz bera, eta Guk taldeak sentibiltate berezia agertu zuen bertako gaiekiko. Horretaz gain, «kantzerkiak»

egiten zituzten, eta horrek ekarri zuen bertan arrakasta gehien izan zuten kantariak izatea. «Ikuslegoarekin osmosian egon nahi zuten agerraldietan, jendeari parte harrarazi, kontzientziatu nahi zuten. Anitz markatu zituen Ipar Euskal Herrian zegoen exodoak, eta jendea kontzientziatu zuten, hemen gelditu behar zela eta ez zela lurra saldu behar: gaur egun oraindik hemengo borrokak, maleruski».

Borda, Lacarrieu eta Sarasolak osatzen duten taldeak Berzaitz eta Labeguerie lagun izan ditu aldizka. «Guk, beraien pentsatzeko eran, elkarrizketatu ditudan estilo guztietako musikariren artean, argi eta garbi punkenak dira. Nahi dutena, nahi dutenean egiten dute, ezetz erraten badiete egingen dute.

Ezin da euskaraz abestu, ba egingo dute; ezin bada argitaratu egingo dute... belaunaldi horretako guztiak horrelakoak ziren, baina beraiek bereziki», erran du idazleak.

HISTORIA EZAGUTARAZI

«Liburu hau egin dut guzti horren transmisioa egon dadin. Aztarna bat gelditu behar da gazteak, eta gu ere, kontura gaitezen nondik datorren euskara atxikitzeko, euskal herriari bere duintasuna itzultzeko borroka hori. Istorio horiek pixka bat ezagutzen ditugu, pasarte batzuk baziren alde batean eta bestean, baina inoiz ez ziren denak denboran eta garaian kokatuak idatzia izan», adierazi du Larraburuk eta testuingurua ulertaraztearen garrantzia nabarmendu du: «Garai horretan faxismoa zegoela izan behar da gogon: exekuzioak, euskara debekatua, eskubide guztiak laidoztatuak...».

Protagonistek ere kontakizunaren garrantziaren kontzientzia badutela baieztatu du: «Beraiek ere nire senti-

«'Itziarren semea' Telesforo Monzonek idatzi zuen Andoni Arrizabalagaren historian oinarrituta, eta kontzertu batean Arrizabalaga bera eszenatoki gainera igo zen kantatzera, emozio izugarria izan zen», azaldu du idazleak

Ipar Euskal Herriko ia kantari guztiak seminariotik pasatu ziren. Garaiko mundu euskaltzalea bertan zegoen. Euskalduntasunari eta euskarari buruzko errealitateak ez zituzten ezagutzen, eta hango apaizekin ikasi zituzten



mendu bera dute, eta transmisioa garrantzitsua dela iruditzen zaie, gertatu zena ahanzi ez dezagun».

Egungo jendartearekin aldiz, mesfidati agertu da: «Garai horretan euskal herritarrek entzuten zuten; aldiz, gaur egun, ez da hain argi, eta domaia da, zeren eta ahanzten da zenbat borrokatu garen euskararen alde, eta jende horiek zenbat borrokatu diren hizkuntza bizia izan dadin. Oroitu behar da zein zaila izan zen ikastolak egitea, gainera, garai horretan ikastola bat egiten zen aldiro, kantatzera etortzeko eskatzen zieten, beti urrik noski».

LIBURUA ETA EUSKAL HERRIAN KANTUZ

«Guk nahi dugu liburua herriarengandik hurbil egotea, kantuak eta abeslariak bezala», eta horretarako jada zenbait mintzaldi-kontzertu antolatu dituzte liburuaren aurkezpen gisara. Baionako Euskal Museoan abenduaren 1ean, Ligi-Athereiko Uhaitza landa etxean 3an, Durangoko Azokaren kariatara 5ean, Baigorriko Bixentaenean 11n eta Arbonako Arantzolan 17an dira

«Zazpiri bai» ikuskizunaren entsegua. Ikuskizuna egiteko elkartu ziren Manex Pagola, Peio eta Pantxoa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Pantxika Erramuzpe eta Iñaki Urtizberea. Daniel VELEZ

lehenak, urtarrilerako jada batzuk finkatuak dituzte, eta beste eskaera batzuei erantzuten ari dira.

Sarako Biltzarrean egin zuten aurkezpenean ikusleen emozioa nabarmena izan zen. Larraburuk liburuan agertzen diren pasarte batzuen eta garai horretako giroaren gainean emandako azalpenekin tartekatuz, kontakizun bakoitzari egokitzen zaion abestia interpretatu zuten kantariek. Hemendik goiti ere horrela izanen da, eta aldiro bost edo sei abeslari joanen dira. Baionako eta Baigorriko emanaldietan

«Txiki»-ren anaiak exekuzioaren bezperan berarekin egoteko eskubidea izan zuen, eta honek esan zion Peio eta Pantxoarengana joan behar zuela esateko bere kantari gustukoenak zirela, abesten jarraitu behar zutela

Mintzaldi-kontzertuak egingo dituzte eta abeslariak ikusleekin batera kantatuko dute, haiek eskatzen dietena. «Izpiritua argia da: ikusleekin partekatzea. Eskatzen diguten toki guztietara joanen gara», erran du Larraburuk

gehienak izanen dira, beraiekin Pantxika Erramuzpe izanen da, taula gainera hurbildu daitekeen emakume bakarra, eta Gexan Alfaro ere bilduko zaie. Sarasolak proposatuta, ezaguna ez den inguruko bertsolari gazteren batek parte hartzea nahiko lukete.

«Euskal Herrian barna ibiliko gara, eskatzen diguten toki guztietara joanen gara», baieztatu du idazleak. Anitzetan abesbatzen edo kantu taldeen gonbidapenen bitartez izanen da, «horrela kantu horiek ezagutu eta abestu ahal izanen dituzte, aldi berean jakin dezaten nola idatziak izan ziren, eta zergatik izan ziren eginak». Hurbiltasuna ere oso garrantzitsua izanen da: «Ikusleekin batera kantatuko dute, ikusleek eskatuko dietena. Izpiritua argia da: ikusleekin partekatzea».

Peio Etxeberrri Aintziart Elkarreko editorearen gonbitari erantzunez idatzi zuen liburua Larraburuk, eta duela 20 urte euskal rockari buruzko obra egiteko Pagolari egin zion elkarrizketa hartu zuen abiapuntu, eta gero artistekin elkartu zen: «Urtebete inguru behar izan dut elkarrizketak egiteko (COVIDARENGATIK), eta hainbeste hartu dute parte iruditzen baitzait liburua beraiekin egin dudala». Informazio guztia bilduta sei hilabeteetan idatzi zuen liburua.

Bide horretan izan duen laguntza nabarmendu nahi izan du, bai Jean-Louis Davantena, testuinguruan kokatzen, bai Ellande Duny-Petzerena, bere artxi-boekin: «Beraien fan izugarria da, gauza anitz ditu, afixak eta dena».

Sarako aurkezpena, Eñaut Larralde-ren seme-alabak diren Helenek eta Xabik errandako itxaropen eta engaiamendu hitzekin bukatu zuen Larraburuk: «Euskara baino urrunago, belaunaldi horrek 'euskalduntasuna' argitzen du. Abeslariak kantatzen dute, eta oihartzuna dute euskal herritarren bihotzetan. Herri euskaldunak ulertzen du, geroari buruz, bere indarrean baizik ezin duela kontatu». Esaldi horien funtsa liburuaren hastapean idazleak ezarri duen hiru hitzetan laburbiltzen da: «Ezina, ekin ez gina».

HAURREN AURREAN HELDUOK HELDU

«Zer ikusi, hura ikasi», hain sinple eta hain garrantzitsu

Haurrak ez du hizkuntza bakarrik ikasten, hizkuntza hori erabiltzeko modua ere ikasten du; non, noiz, norekin... Eta hizkuntzaren sozializazio hori –beste gauza gehienak bezala– inguruan dituen helduei begira ikasten du. «Zer ikusi, hura ikasi», hain sinple, hain zail eta, batez ere, hain garrantzitsu. Euskaltzaleen Topaguneak mahai gainean jarri duen azken ariketa sozialak –azaroaren 22 eta abenduaren 5a bitartean Euskal Herriko kasik ehun tokitan martxan jarriko denak– gogoeta horixe piztu nahi du haurren inguruan dabilen helduen baitan: zernolako hizkuntza ohiturak di-

 **HIZKUNTZA** / Amagoia Mujika Telleria

Haurrak euskaraz egitea garrantzitsua da. Helduek hurrei euskaraz egitea garrantzitsua da. Baina hori bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da helduek haurren aurrean euskaraz egitea, haurrak ikus dezan eta ikas dezan euskara egunerokorako jantzi dezakeela, euskaraz egitea naturala dela, arau soziala.

tuzu haurrak aurrean daudenean?

Izan ere, helduen hizkuntza portaera horiek eragin zuzena daukate hurrengan, bai ikasteko prozesuan eta bai erabiltzeko ohituretan. Hartara, helduen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa piztu nahi ditu ekimenak, haurrak aurrean daudenean euskara gehiagotan eta gehiagorekin erabil dezaten.

Euskaltzaleen Topaguneako lehendakari Kike Amonarriren hitzetan, «ekimenaren ize-na irakurrita, denok dakigu zertaz ari garen; haurrak euskaraz ari dira agian, baina haien aurrean gurasoak, irakasleak, begiraleak, entrentzaileak... erdaraz ari dira haien artean. Egutero errepikatzen den egoera bat da eta egoera horri erantzutera dator ekimena».

Haurren inguruan dabilen helduei zuzendu die mezua orain Topaguneak, «Euskaraz 365 egunetan!» ekimenaren baitan. Gaizka IROZ | FOKU

Abiapuntua garbia da: haurrek euskaraz egingo dute, batez ere, ingurunean euskaraz egiten dela ikusten baldin badute. «Arau soziala euskara baldin bada, haurrak arau horretara egokitzen dira eta euskaraz egiten dute. Baina arau soziala gaztelera edo frantsesa baldin bada, haurrek ikusten dute inguruko heldu guztiak erdaraz ari direla eta, haurrak euskaraz ari badira ere, une batetik aurrera erdaraz egingo dute. Hurrei euskaraz egitea oso garrantzitsua da, baina horrekin batera, hori bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da haurren inguruan dauden helduek euskaraz egitea, haurrak ikus dezan bere ingurunean arau soziala euskara dela».

Ez gatoz hutsetik, Amonarrirek aurreko belaunaldiak egin dako lana nabarmendu nahi izan du. «Aurreko belaunaldiak egin zuten ahalegin ikargarriari esker, belaunaldi gazteek euskaraz ikasi dute. Une honetan, haurrak eta gazteak dira euskaraz gehien dakitenak eta kaleko erabilera neurketetan euskaraz gehien egiten dutenak. Hori lorpen handia da. Bide horretan pauso horiek onak eta itxaropentsuak badira ere, dinamika horiek indartuko baldin baditugu, ezinbestekoa da urrats bat aurrera egitea. Ez bakarrik haurrek eta gazteek euskaraz ikastea, ez bakarrik beraiei euskaraz zuzentzea, baizik eta beraien ingurunea euskalduntzea».

URRATS BAT EGITEKO GARAIA

Topagunean garbi daukateenez, hizkuntzaren biziberbitze prozesuak hurrengo hamarkadetan erabileraren





inguruan urrats sendoak egingo baldin baditu, ezin bestekoa da haurren eta gazteen inguruneak euskalduntzea. Hasiera-hasieratik, euskaraz egitea. «Proposatu dugun ariketa soziala norabide horretan doa, baina administrazioek ere –udalek bereziki– sekulako erantzukizuna daukate dagoeneko euskaraz dakiten haur eta gazte horiei zuzenduriko ekintzak eta zerbitzuak defektuz euskaraz eskaintzeko. Hurrengo hamarkadan bi puntu horiek klabeak izango dira; haur eta gazteen ingurune hurbilaren hizkuntza portaera eta administrazioaren jarrera».

Hizkuntza portaerari begira, hezkuntza eta aisialdia mahai horren bi hanka garrantzitsu dira. Izan ere, gertatzen dira egoera aldrebesak. Esaterako, kirol jarduera batzuetan, haurrak eta entrenatzailea euskaldunak izan arren, azalpenak

erdaraz izatea. «Ariketa sozial hauen helburu garrantzitsuei inertzia puskatzea da, hizkuntza ohiturak aldatzea. Horrek hausnarketa bat eskatzen du, errealitateaz jabetzea eta aldaketarako mekanismoak izatea. Uste dugu une egokia dela hausnarketa horiek bultzatzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko. Ariketa honetan horregatik ez gara mugatu gurasoetara. Ariketa honen hartzaileak dira haurraren ingurunea osatzen duten kolektiboak eta hor sartzen dira aisialdian zerikusia duten elkarteak edo talde antolatuak. Hor kirolak garrantzi berezia hartzen du eta egia da kirol batzuetan aurrerapausoak ematen ari direla, baina futbola dela aurrerapausoak emateko zailtasun gehien azaltzen duen alorretako bat. Eta ezin dugu ahaztu gaur egun Euskal Herriaren zati handi batean haur eta gazte guztiek gutxie-

0-12 urte bitarteko haurren inguruan ibiltzen diren helduei zuzendutako ekimena da. Gurasoak, senideak, hezitzaileak, jangelako begiraleak... haurrengan eragina daukaten eta eredu garri diren helduak.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

nez euskara ulertzen dutela. Leku askotan ez dago inolako arazorik begiraleek euskaraz egin dezaten. Baina horretarako erabakiak hartu behar dira, dauden inertzia puskatu eta hezitzaileak prestatu behar dira, bai hizkuntza aldetik eta bai jarrera aldetik. Iruditzen zaigu horretarako unea iritsi dela».

Inertzia, hain sotilak eta hain indartsuak, konturatu gabe eta ohituraz egiten direnak. Eta haurraren inguruko asko harritu egiten da; «nori ikasi ote dio hori?». Akaso galdera egin duen horri berari.

«Hitzaldiak ematen ditudanean, askotan galdetzen diet bertaratutakoei zergatik uste duten ez dela euskaraz egiten beren ingurunean euskara gehiago erabili daitekeen kasuetan. Erantzun ohikoenak beti-beti berak dira; ohitura edo inertzia. Gero aztertu behar dena da ohitura edo iner-

tzia horren azpian zer dagoen. Baina funtsean hiru arrazoi nagusi aipatzen direla esango nuke; ezagutza maila, kontzientziazioa eta moda, inguruko jarrera... Horrek zerikusi handia dauka espazioak euskalduntzearekin, euskaraz egingo den arnasguneak ugaltzearekin. Eta hor administrazioaren eta gizarte eragileen ardura handia da».

Ezagutza badago eta kontzientziazioaren suari egurra bota behar zaio. Aktibazioa falta da, egin beharretan zailena akaso? «Askotan bai. Inertziek askotan uste baino indar handiagoa dute. Inertzien azpian zer dagoen identifikatu behar da eta hortik abiatuta aukerak identifikatzen eta jendea ilusionatzen asmatu behar da. Jendeak gai honen inguruan hitz egin behar du, adostasun batzuetara iritsi behar du eta hori da ariketa sozial hauek eskaintzen dutena; hizkuntza ohitura horiek aldatzeko aukerak bat».

ARIKETA SINPLEA

«Ariketa sinplea da proposatzen duguna, 0-12 adin tarteko haurren inguruan dabilzan helduei bideratutakoa: gurasoak, senideak, irakasleak, jangelako begiraleak, bestelako hezitzaileak... ulertzen dugu horiek daukatela haur eta gaztetxoengan eragin eta eredu garritasun handiena. Hori izango da gure xede taldea», azaldu du Goiatz Urkijok, ekimenaren koordinatzaileak.

Ariketan parte hartzera animatzen direnek lehenik eta behin galdera bat egin behar diote beren buruari: norekin alda ditzaket nire hizkuntza ohiturak haurrekin partekatzen ditudan espazio eta ekintzetan? Norekin indartu ditzaket? «Behin hausnarketa hori

eginda, hizkuntza ohiturak aldatzeko aukeratu dituzten heldu horiei ariketa proposatzea da bigarren pausoa; ariketa azaldu eta parte hartzera animatu. Hirugarren pausoa ere garrantzitsua da: inguruan ditugun helduei zertan ari garen eta zergatik kontatzea».

Behin hausnarketa eta pres-taketa lanak eginda, azaroaren 22a eta abenduaren 5a bitartean jarriko da martxan ariketa. «Ariketa egiteko modu desberdinak daude. Batetik, euskaraz ondo moldatzen bagara, lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzen du ariketak: euskaraz dakiten ezagun zein ezezagunekin eta ulertzen duten guztiekin, euskarari eustea. Bestetik, ulertu bai baina hitz egiteko zailtasunak baditugu, inguruko helduei eskatuko diegu gurekin euskaraz egiteko. Horixe da praktikan ariketan egin beharrekoa».

“Haurren aurrean helduok heldu” ariketak irauten duen bitartean, ekimena aurrera eramateko guneak identifikatuta egongo dira. «Ariketa egiteko gune babestuek sortuko ditugu. Ariketan parte hartuko duten toki guztietan ariketa egiteko espazioak identifikatu dituzte. Espazio informalak lehenetsi ditugu; herrietako plazak, terrazak, parkeak, eskola kanpoaldeak... eta etxea ere izan daiteke ariketa egiteko gune», azaldu du Urkijok.

Ekimenaren iruditegiaren bitartez markatuko dira espazio horiek eta mesedegarri izan daitezke ariketa gogorazteko.

Haurren inguruan dabilzan gurasoek askotan «mezu kontraesankorrek» ematen dizkiete haurrei: «haurrak, egin euskaraz» agintzen diete, baina haiek zer hizkuntza darabilte? «Gutxienez horren inguruko



«Ezinbestekoa da urrats bat aurrera egitea. Ez bakarrik haurrek eta gazteek euskaraz ikastea, ez bakarrik beraiei euskaraz zuzentzea, baizik eta beraien ingurunea euskalduntzea»

«Soziolinguistei behin eta berriro entzuten diegu: hizkuntza bat biziberritu nahi badugu, hurrengo belaunaldiek egin behar dute eta ulertu behar dute ohikoa dela euskaraz bizitzea»

gogoeta piztea bada helburua. Pare bat buelta eman behar diegu hizkuntza ohitura horiei eta eredu izan behar dugu, umeei helduei egiten dutena imitatzen dutelako. Erreferente koherenteak izatearen garrantzia nabarmendu nahi dugu».

Hizkuntza portaera horiek ez ezik, haurrekin partekatzen den aisialdian egiten diren hautuak ere koherenteak izatea bultzatu beharko litza-teke Urkijoren ustez, «umeei ikus dezaten euskaraz egitea

ohikoa eta naturala izan daitekeela alderdi desberdinetan, ez soilik eskolan edo etxean. Euskarazko espazioak eskaini behar dizkiegu haur horiei».

“Haurren aurrean helduok heldu” ariketa sozialak bi alderdiak ditu; sinplea eta zaila da aldi berean, inertziak uste baino zamatsuagoak direlako. Eta, era berean, euskararen etorkizunari egin dakioken mesedea handia da. «Badakigu ez dela hain ariketa erraza. Garbi daukagu hizkuntza ohiturak ez direla egun batetik bestera aldatzen. Indarrak batu behar dira eta horregatik antolatzen ditugu ekimen desberdinak. Euskaraldia da horietako bat eta hau, ‘Haurren aurrean helduok heldu’ puntualagoa da, eremu mugatua-gora bideratua». Topagunean garbi daukate ekimen guztiak beharko direla hizkuntza ohiturak aldatzeko, orokorrak eta puntualagoak.

«Soziolinguistei behin eta berriro entzuten diegu: hizkuntza bat biziberritu edo indarberritu nahi badugu, hurrengo belaunaldiek egin behar dute eta ulertu behar dute ohikoa dela euskaraz bizitzea. Hori da ekimen honekin erakutsi nahi duguna; euskaraz egitea ohikoa izan daitekeela eta horixe da gure hurrengo belaunaldiei utzi behar diegun arau soziala».

Oraingoz Euskal Herri osoko laurogeita hamar herri baino gehiago batu dira ekimen-era eta dagoeneko beste toki askotatik jarri dira harremanetan Topagunearekin, aurrera begira ariketa soziala beren ingurura eramateko asmoa erakutsiz. Pozik daude harrerarekin, pandemia osteko egoera korapilatsu honetan herri asko animatu direlako.

Araba

- Bastida
- Gasteiz
- Gorbeialdeko Kuadrilla (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia).
- Trebiñuko Barrendegia (Trebiñu eta Argantzón)

Bizkaia

- Arrigorriaga
- Barakaldo
- Bermeo
- Berriz
- Deustualdea
- Durango
- Elorrio
- Enkarterri (Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla).
- Erandio
- Etxebarri
- Gatika
- Gernika-Lumo
- Getxo
- Izurtza
- Larrabetzu
- Maruri-Jatabe
- Ondarroa
- Orozko
- Portugalete
- Sestao
- Ugao
- Zeberio

Gipuzkoa

- Arrasate
- Bergara
- Deba
- Donostia
- Eibar
- Elgoibar
- Eskoriatza
- Gabiria
- Hernani
- Irun
- Lazkao
- Legazpi
- Legorreta
- Oiartzun
- Oñati
- Ordizia
- Tolosaldea (eskualde mailan antolatuko dute eskualdeko hainbat herritan)
- Urretxu-Zumarraga
- Zegama
- Zumaia
- Mutriku

Nafarroa

- Altsasu
- Araitz
- Atarrabia
- Etxarri Aranatz
- Lakuntza
- Olatzagutia
- Zangoza
- Zizur Nagusia

Ipar Euskal Herria

- Hainbat eragileren eskutik sektorialki antolatuko dute ekimena



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Bizitzaren giltzak

Hilabeteotan hamaika aldiz esan izan da, eta beste hainbestetan konprobatu izan dugu, ezagutza zientifikoak bere mugak dituela.


Itzaltzen zirudien La Palmako sumendiak berriz bortiztu egin du bere jarduna, antza, eta txertoekin apalduko eizzen pandemia ere, olatu berri baten hasieran dagoela dirudi, Europan behinik behin. Zientzia oso tresna zehatza da errealitatea aztertzeko eta asko du oraindik ikasteko, geologian eta biologian ere bai. Lehen aldiz ari gara sumendi baten aktibitatea aietik ikusten, ikasten, eta urrun daude lur azpiko magmak oraindik. Bizitzaren logikaz ere, azter litekeen erpin aniztetatik, hasiberriak gara ia genetika kontuan eta, zeresanik ez, proteinekin osatzen duten eremu erraldoi eta ezaguna, proteoma deritzana aztertzen jarrita.

Hain zuzen ere, asteon jakin dut urrats handi bat egin dela azken esparru honetan Pennsylvaniako Unibertsitatean (AEB). Cesar de la Fuente gazte galiziarra buru, gaitasun antibiotikoak dituzten 2.603 peptido antzeman dituzte, organismoak naturalki sortzen dituenak. Ikerlariak harritu egin dira peptido hauen funtzio biologikoak ez duelako sistema immunologikoarekin zerikusirik eta, hala ere, aktibitate antibiotikoa erakutsi dutelako. Adimen artifiziala erabili dute dokumentu batean hitz bat bilatzeko nola (Ctrl+F), hala ezaugarri antibiotikoak izan ditzaketen peptidoak antzemateko eta algoritmoak 43.000 aurkitu ditu, ez soilik espero zitekeen bezala immunitate sisteman, baita nerbio sisteman, kardiobaskularrean zein digestiboan ere. Esan bezala, 2.603 dira guztietatik bilatzen ziren parametroei hoberen egokitu zaizkienak eta funtzio antimikrobianoak balidatzeko, hauetako 55 sintetizatu egin dituzte eta 8 patoge-

nori aurkeztu. Ikerketaren arabera, 55 hauetatik %63,6k aurre egin zieten patogenei, eta horretaz gain, hesteetara eta azalera mugitu ziren, mikrobiotaren erregulazioa bera peptido hauen egitekoa izan daitekeela espekulatzera eramanez. Gainera, ez zen inolako toxikatzerik antzeman proba hauetan eta, hoberena, peptidook bakterio patogenoen mintzei erasotzen dietela ikusi da, hain zuzen, ohiko antibiotiko-erresistentziak garatzeko mutazio estrategiak gertatzen diren lekuan.

Guztiarekin, antibiotikoei erresistentziak garatzeak dakarren mehatxu globalari aurre egiteko estrategia berri bat zabaldu dute ikerlariok, eta bide horretan, bizitzaren logikaz ikas-

teko bide berriak urratu ere bai. Izan ere, bizitzarako funtsezko funtzioak betetzen dituzten proteina edo peptido hauek, aminoazidoz osaturiko molekula handiak besterik ez dira. Baten amino taldeak bestearen azidoarekin erreakzionatuko du lotura peptidikoa deritzana emanez, eta ur molekula bat askatuz. R ezberdina duten 20 aminoazido hauek zein ordena eta kopurutan batzen diren, espazialki zein funtzionalki ezberdina den molekula bat emango dute, forma eta hortz anitzak dituzten giltzen joko izugarri handi bat beste hainbeste sarrailetan eragiteko. Hauen gaineko ikerketak bizitzaren gaineko ezagutza ate berriak zabalduko dizkigu, berandu baino lehen, muga berriekin tupust egiteko. •



{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Oheko eszenak

Zenitala da planoak, eta neure burua ikusten dut pantailaren erdian: ilea harrotuta, edredoia nahi baino beherago, bi bularretako bat bistan. Planoa pixka bat irekitakoan, bikotea ageri da aldamenean, hura ere etzanda, kamisetarik gabe; indartsu ekin dio, antza, tapakiari, ia-ia iristen baitzaio, itxi berri zaizkion begietaraino. Kameraren azken mugimenduaz ikusi dut, bero-bero estali eta gero, guztia ostikoka erretiratzeko duena ere, bestaldean: seme txikia, titi usainak lurrinduta, lo. Objektiboari zuzen begiratu, eta ikusleei hizketan hasiko nintzaieke, gustura, “Fleabag” telesailaren estiloa: «Oheko eszenak, gurean, azken hamazazpi hilabeteotan». Eta, *ttak*, orduantxe sartuko litzateke Charlie Dee-ren “Baby you” doina, nire pentsamendueta-
ra bidaiatzeko.

Bat-batean, bezperako goizeko seiak dira pantailan: ohe berbera, iratzargailu soina, eta lorik sokenean sartu berritan, esnatu beharrak pizten duen buruko min bizia. Lortu dut ohetik jaikitzea, haurra mugitu ere egin gabe; samuraien pareko teknika findua baino finduagoa daukat. Ez dakit gau osoan zenbat aldiz esnatu naizen, ezta zenbat lo egin dudanez ere; ez dakit jakin nahiko nukeen. Izan nadin mekaniko: berogailu txikia piztu, biluztu eta dutxara. 40 gradutik gorako zorrotadaren azpian, neure burua besarkatzen dut fisikoki, akaso orekatzearren, askoz ere gehiago kostatzen zaidalako mentalki antzeko zerbaitegitea. «Begi zulo kronikoak eta titiak mahaspasak bezala, hutsik; ez dago erraza», esaldia kamerara.

Kantuaren bolumena gora doa, ikuspegi zenitala berreskuratzeko. Ni, oraindik erdian, eta semea oheak eskaini diezazkiokeen orientazio guztiekin proba egin nahian: burua ezkerrean; gero, burua oinek behar

luketen tokian; gero, burua nire sudur gainean, kolpe eta guzti. *Joder!*, orduak eta egoerak baimendutakoa baino ozenago esanda ere, ez da bietako inor esnatu. Eskerrak, kameraren konpainiari: «Nire lo arinak, ala bikotearen lozorroak, zerk amorratzen nau gehiago?». Frustraziotan blai, banoa ohe ertzera, haurra jarritan, titia har dezan. Abisua ikusleei: «*Surtidore* bat dirudit, badakit. Ezerk ekartzekotan, horrek ekarriko dit, honaino, galduta dabilkidan loa».

Aizue, zenbat janzten duen musikak, kontakizun txoroena ere; berriz dator melodia. Orain igandea da, eta iritsi da, hilabeteak atzera kostata zehaztu genuen bazkariaren eguna. Isiluneari betarik utzi gabe ari gara, txor-txor, eta, konturatu naizenerako, minutu dezente daramatzagu amatasunaren bueltan. Ea zer mo-

Hitza hartu dut aukera hori ere defendatzeko, neronek ere banituelako zenbait aurreiritzi, lo anekdotiko batekin hilabetetan biziraun aurretik, eta loa kentzen didan izakitxoaz maitemindu aurretik

duz joan ote ziren urliaren eta berendiaren erditzeak; sandiak bost urtera arte bularra eman diola haurrari. Bat-batean, epaitu nahi ez dugunean eta epaia barruan daramagunean jartzen dugun aurpegi horietako zenbait lehen planoan. Lehen isilunea mahaian. Hitza hartu dut aukera hori ere defendatzeko, neronek ere banituelako zenbait aurreiritzi, ama izan aurretik. Lo anekdotiko batekin hilabetetan biziraun aurretik, eta loa kentzen didan izakitxoaz maitemindu aurretik. Baina ez dut berealdiko babesik sumatu, egia esan. Zer demontre, nirea da telesaila, zuzenean kamerari: «Biberoiek ez gaituzte askatuko, titiek ere ez; enpatiak, akaso, bai?». Gora bolumena. •

Euskal hezkuntza-gintzaren erronka zahar eta berrien gainean hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu Nora Salbotxek, liburu dendetara heldu berri den entseguarekin. Puri-purian dagoen auziari heltzen dio irakasle nafarrak, gai honek gurean hautsak harrotzen dituela jakitun, baina Euskal Herriak behar duen eta euskal herritarrok ezinbesteko dugun hezkuntza sistema egikaritzeko lana bukatu gabe dagoela

iritzita. Erraz irakurtzen den liburua da, batere erraza ez den bide horri argia ematen diona.

Hezkuntza kontuetan gauzak errotik aldatzeko gogo bizia aipatzen duzu hitzaurrean. Gogo bizi horrek eraman zaitu liburua idaztera?

Agian bai. Batetik hori, eta bertetik, aitortuko dizut artikulua eta hitzaldiak ematen ditudala, baina inoiz ez dudala astirik hartu ideiak pixka bat antolatzeko. Hori hor zegoen. Gainera, Iratzarrekoek proposamena egin zidaten, eta gero

hor bazebilen hezkuntza lege berri bat etor daitekeen zurrumurrua, LOMLOE onartu berri da Madrilen, Ipar Euskal Herriko gatazka horiek guztiak hor daude..., momentu aproposa zela pentsatu nuen. Izan ere, sare sozialetan eztabaida bizia ikusten dugu, elkarri gure arrangura guztiak jakinarazten dizkiogu, baina arras gutxi idazten da, entseguan batere ez, euskal hezkuntzari buruz. Bertetik, pandemiak hausnarketa berrietara eraman gaitu, eta horiek ere ekarri nahi nituen. Hezkuntzaren buelta-

«Hezkuntzari lotutako disidentzia bat izan da, eta oso aitortza txikia egin zaio. Aitortza egin nahi nien horretan ibili diren familiei, komunitateari eta, batik bat, emakumeei, askotan emakumeen militantziarekin eta lanarekin zerikusia izan duelako»

ko eztabaida prentsan edo sareetan ikusten dugunean elementu asko falta direla uste nuen, eta ekarpena hortik egin nahi nuen.

Liburuaren hasieran nondik gatozen azaltzen duzu, eta beste hainbat ideiarekin batera iruditzen zait sentipen bat gailentzen dela: euskaldunok beti korrontearen kontra ari-tu behar izan dugu esparru honetan. Halaxe izan al da?

Bai, nahiko nabarmena dela uste dut. Garrantzitsua iruditu zitzaidan, labur bada ere, non-



«Hezkuntzaren gaineko nazio akordio baten premia nabarmena da eta gero eta sektore gehiagotan atzematen da»

dik heldu garen ezagutaraztea. Garrantzitsua iruditzen zait, aipatzen duzun ildo horretan, erakusteko herri honetan hezkuntzarekiko grina bat egon dela. Hezkuntza ez da batere aseptikoa, guztiz politikoa den eremu bat da, eta estatuek bezala herriek ere jakin izan dute hezkuntzak beren garapenean zer garrantzi duen ikusten; transmisio kulturean, hezkuntzarenean eta balioenean.

Batetik, hori zuri-beltzean jarri nahi nuen, eta bertzetik, horrekin batera, aitortza bat egin nahi nion bide horretan gertatu den guztiari, askotan emakumeen militantziarekin eta lanarekin zerikusia izan baitu. Aitortza emakume horiei, batik bat emakumeak izan direlako; aitortza familei; eta aitortza komunitateari orokorrean, bai hezkuntza eta kulturaren transmisioa eskolara edo irakaskuntzara ekartzeko saiakera horregatik, bai eta ere sare publikora eramateko borrokagatik. Hezkuntzari lotutako disidentzia edo kontrabotere bat izan da eta oso aitortza txikia egiten zaio.

Bertzetik, garrantzitsua iduritzen zitzaidan honi heldzea, batzuetan, gaurko eztabaidan dagoeneko helmugara heldu garela ematen duelako, eta askotan defenditu dut inondik ere ez gaudela helmugan, aunitz dugula oraindik borrokatzeko. Prozesu baten baitan kokatu nahi nuen: hemendik gatz, borrokan ari ginen eta gaur ere borrokan ari gara. Horregatik hitz egiten dut hezkuntzagintzaz, oraindik azken helmugara heldu ez den prozesu gisa ulertzen dudalako.

Aitortza falta izan dela aipatu duzu; zeri egozten diozu?

Segur aski emakumeek egin dutelako gertatu da. Irakas-

kuntza oso sektore feminizatua delako, zaintzari, euskarari eta emakumeei lotutakoa. Periferizatutako eremuen hiruki bat ateratzen da: emakumeena, zaintzarena, euskararena. Lorea Agirrek eta Idurre Eski-sabelek ongi azaltzen dute. Hori izan daiteke arrazoi bat.

Hezkuntza sistemaren ezaugarritzeaz, alde batetik, nazio, hezkuntza eta identitate kulturala ezabatzeko nahikeria aipatzen dituzu, eta bestetik, patriarkatuan eta kapitalismoan bezatuak izateko asmoa. Hezkuntza sistema horrek ezaugarritu du?

Sorreratik, bai. Estatu nazioek irakaskuntza publikoa diseinatzeko dutenean, argi dago beren nahia hori dela. Dena den, Euskal Herrian nahiko argi izan dugu gu espainolizatzeko edo frantsesteko nahia baze-goela, baina ez diogu hainbertze heldu patriarkatua sendotzeko, apuntalatzeko helburu horri, eta bistan da kapitalismoa sendotzeko eta bizirauteko eginda dagoela baita ere. *Statu quo* bati jarraipena emateko. Eta hori falta zaio, hain zuzen ere, gaurko eztabaidari. Termino horietan gutxi hitz egin da eta hori ekarri nahi izan dut batez ere. Bertzea oso jorratuta dago; zati hori, aldiz, ez horrenbertze.

Hizkuntzari dagokionez, argi dago euskarazko hezkuntzaren beharra ez dela duela gutxi azaldutako auzia.

Bai. 1934an Eusko Ikaskuntzak bazuen batzorde bat hori jorratzen zuena, bertzeak bertze. Euskara ez dago gure lurraren luze-zabal guztian hezkuntza sistemaren baitan bermatuta, eta hor badago aitortu nahiko nukeen beste militantzia bat, haurrak euskaldundu nahi

izan dituztelako egunero ez dakit zenbat kilometro egin izan duten horiena, edo Lodosan ikastola bat muntatzeko sekulako zorpetzeak izan dituzten lagunena, adibidez.

Bertze alde batetik, ematen du hezkuntzaren ideia utilitario edo funtzional batekin konformatu garela, ingelesa, frantsesa, alemana edo beste edozein hezkuntza ikasten ari tuko bagina bezala, eta gertatzen da kultura transmisioa gero eta eskasagoa dela. Hor erlaxazio bat egon da. Azkenean, curriculumak heltzen zaizkigun tokitik heltzen zaizkigu, eta komunitate gisa alarma gorri bat etengabe piztuta duzu edo hori badoa lasaitzen. Duela gutxi, ama batek esan zidan alaba 4. mailan daukala D ereduan eta oraindik ez duela Euskal Herriko mapa bat ikusi. Espainiako errekek eta, bai. Eta ez naiz Geografiaz bakarrik ari, kulturgintza eta Euskal Herriko mundurako begirada hori ez dakit nahiko ahaztuta ez ote daukagun.

Euskarazko hezkuntzaren bidean bi mugarri aipatzen dituzu; ikastolen sorrera, batetik, eta bestetik Iruñeko Udal Ikastolak zabaldu zuen bidea. Zer garrantzi izan zuten?

Ikastolena, militantzia ausarta, erabat disidentea eta kontrahegemoniko baten lorpena da. Haiei zor diegu, hein handi batean, gaur hemen euskaraz solasean egotea; nik ez dakit bertzenaz euskaraz ari tuko nintzatekeen. Bizirautea, erresistentzia eta herri honen eskakizunari, beharrari edo grinari erantzuteko gaitasuna aitortu behar zaie. Are gehiago, gaur egun ere, bertzeak bertze, oraindik administrazioen sisteman euskara heldu ez den tokietaraino euskara

NORA SALBOTX

IRAKASLEA

Iratzar Fundazioaren eta Txalaparta argitaletxearen eskutik, Nora Salbotx irakasle eta hezkuntzan adituak euskal hezkuntzagintzaren iragana, oraina eta etorkizuna maisuki jorratzen dituen

«Askatu edo moztu» liburua aurkeztu du

Iker Bizkarguenaga

«Euskal Herrian nahiko argi izan dugu gu espainolizatzeko edo frantsesteke nahia bazegoela, baina ez diogu hainbertze heldu patriarkatua eta kapitalismoa sendotzeko helburu horri, eta bistan da hezkuntza sistema horretarako eginda dagoela baita ere»



Jagoba MANTEROLA | FOKU

bertze aldagai bat dela batez ere migratutako pertsonekin eta klase ekonomiko baxuko ikasleekin ghattizazio prozesu horietan. Hizkuntza segregazioa iraunkortzeko erabili da, eta hor susmopean jarri beharreko politika administratibo batzuk daudela uste dut.

Fokua zabalduz, Reagan administrazioaren “A Nation at Risk” txostena neoliberalismoak hezkuntzan izan duen esku-hartzearen sortze une gisa jotzen duzu. Nola gauzatu da injerentzia hori?

Segur aski askoz atzeragotik datorren prozesu bat da, baina une batean neoliberalismoak hezkuntzan esku-hartze bat egin behar duela erabakitzen du, hortik moldatuko dituelako bere pentsaerara etorkizuneko herritarrak. Hor hasten da modu ageriko batean hezkuntza sistemak neoliberalismoaren zerbitzura jartzeko saiakera. Reagan administrazioak sustatuta hasten da, gero handik urte batzuetara badator Europara, eta arrapaladan mundu osoan barrera sekulako erreformak heltzen dira hezkuntzan. Denak oso terminologia berdintsuan: kalitatea, konpetitibitatea, enprendizajea, eta halakoak. Hori neoliberalismoaren estrategia da, gaur sukalderaino sartuta daukaguna.

Euskal hezkuntzak publikoa eta burujabea izan behar duela ondorioztatzen duzu, eta burujabetzari dagokionez aipatzen duzu zooma zabaldu behar dela gaurko erronka berriei erantzuteko. Zeintzuk dira erronka berri horiek?

Inolaz ere ez gukeela burujabetza erdaldun bat irudikatuko, baina, baita ere, XXI. mendeko Euskal Herriak eus-

eraman izana aitortu behar zaie. Bai eta gaur egun ere, pedagogiaren berrikuntzan edo ikasmaterialgintzan egiten den ezinbertzeko lana ere.

Eta 77an jazotakoa (Iruñeko Udal Ikastola) ere mugarri bat da, bertze disidentzia edo ariketa desobediente baten ondorioz sartzen delako lehenbizi euskara sare publikoan. Kasu honetan ez zen sare estatala, Iruñeko Udalekoa baitzen, baina gero hori aldatu zen. Hor guraso talde batek zera erabaki zuen: «Guk ere badugu es-

kubidea denen diruarekin ordaintzen den sare horretan edo ikastetxeetan euskaraz aritzeko». Iduritzen zait ondorio kuantitatiboaz gain, eta begiratu dezakegu zenbat haur euskaldundu dituen sare publikoak, kualitatiboki ere eztabaidari ideia berriak sartu zizkiola. Demokratizatuko dugu, zabalduko dugu, edozein gaitasun ekonomikoko familiak euskaraz ikasteko aukera izango du... Unibertsalizazioaren elementu berria sartzen da borrokara, hezkuntzagintzara.

Hizkuntza ereduen desagerpena eta murgiltze ereduaren beharra aldarrikatzen duzu. Ezinbestekotzat jotzen duzu?

Bai, ezinbertzekoa. Gainera uste dut aspalditik datorren eztabaida dela. Kontseiluak bere garaian «ikasle euskaldun eleantizunak» proposamena egin zuenean hortik zihoan. Gure eredu bistan dena da diglosia egoera batean sortua dela, eta bertzetik nahiko politika akonplejatuetatik sortutako zerbait dela iduritzen zait. Hain zuzen ere, Alemanian ez

luketelako inondik ere ezbaian jarriko alemana bermatu behar ote den, eta Euskal Herrian gauza horiek ezbaian jartzen ditugunean espazio handia galtzen dugu, edo bertze norbaiti oparitzen diogu. Uste dut gaur egun adostasun nahikoa badela. Bertzetik, hor ikusi da batzuk aspaldi erraten genbiltzana, hizkuntza zer puntutara arte segregaziorako arrazoi gertatzen ari den herri honetan, berdin dit Nafarroako Erriberan, EAEn edo nahi duzun tokian, hizkuntza nolabait

kal errepublika bat proiektatu-ko badu, euskal errepublika hori halabeharrez euskaldunaz gaindi soziala izan beharko du; nahi dugun terminoetan, klase kontzientzia daukana. Eta izan beharko du feminista, ez patriarkatuaren mendeko edo patriarkatuaren eskemen baitan eraikitakoa. Hortik doa ekarpena. Konbentzituta bainago hezkuntzatik ekarpena egin dakiokela erakuntza lan horri, naziogintza edo estatugintza horri.

Publikotasuna nola ulertzen duzu? Finantzaketaz eta ku-deaketaz bakarrik hitz egiten ari gara, edo beste zerbait da? Uste dut gaur oso sektore gutxi defendatuko dutela titulartatara murrizten den publikotasunaren ideia hori. Eta ez bakarrik hezkuntzan, hezkuntzatik harago bertze esparru askotan komunitarismoa eta publikotasuna elkarri eskutik helduta ulertzen ari dira; horizontaltasunaren zentzuan, parte-hartzearen zentzuan,...

Hori, edozein tokitara banoa, baina Euskal Herri hitz egiten ari gara, eta Euskal Herriak bere instituzio propioak ez dauzkan bitartean gure publikotasunak beti egonen dira baldintzatuta Madrilera eta Parisera agintzen dutenarekiko. Eta publikotasun hori daukagun bitartean, herri honek dituen grinei eta beharrei hortik erantzunik aurkitzen ez dien heinean, bide alternatiboak bilatuko ditu, historikoki egin bezala: kooperatiben bitartez, auzolanean, herrigintzan, bide desberdinak erabiliz, komunitarismoarekin eta militantzia-rekin zerikusia daukatenak.


Baina ez dut erraten gaurko estatutak eskaintzen, edo inposatzen, dizkigun egitura horiei guztiz uko egin diezaiegula;

are gehiago, nik uste dut adibidez udalen egitura horiek eta munizipalistentatik egin daitekeena interesgarria izan daitekeela, eta egitura hori baliatu beharko dugula gure estatugintza horretarako bidean.

Liburua argitaratzen den tes-tuingurua nabarmendu duzu, Euskal Herrian hezkuntzaren inguruan dagoen eztabaida, eta liburuan aipatzen duzu inflexio puntu berrietarako garaia dela. Uste duzu une honetan gai honetan akordio zabal bat eman daitekeela?

Baldintzak badaude. Eragileak elkarri entzuteko edo gauza zehatzei buruz eztabaidatzen egoteko gai dira une honetan. Foro desberdinak sortzen ari direlako, eta hor eragile desberdinak ikusten ditugu, sektore oso desberdinak elkarrekin gauzak partekatzen, entzuten eta eztabaidatzen. Baldintza hori badago. Bertzetik, nik uste dut urteen poderioz ohartuko ginela zenbait gauza agortuta daudela, ereduena, adibidez, eta horri gehitu zaizkio erroka berriak.

Gero, nik uste dut pixkanaka-pixkanaka eragile desberdinak ohartuz joan direla, EAEren kasuan, ezin dela 1993ko gisako lege bat erreproduzitu. Lege bat ez dena bere osotasunean bete, alde batetik, eta bertzetik sekulako zauriak sortu zituen. Zer legeak akordatzeko gara hogeita hamar urte beranduago herri honetan horrelako eztabaida biziak sorraraziko dituen? Ba, hezkuntzari lotutako hura. Haren ondorioek sortzen dituzten eztabaidak oraindik ez ditugu gainditu. Hogeita hamar urte pasatu dira eta elkarren ondoren beharko luketenak, oraindik bukaerako geltokian ez gaude-lako eta tren hori bultzatzen eta indarra ematen egon behar-



ko ginatekeelako, batzuetan elkarri mokoka ikusten ditugu. Ez da hori erreproduzitu behar.

Bitartean, Ipar Euskal Herrian, Molac Legeak ekarritako ondorio guztiekin euskarazko irakaskuntza osoa pintzekin hartuta daukagu momentu honetan, bai sare publikokoa bai kooperatibakoa. Eta Nafarroaz zer esan; oraindik euskara toki guztietan bermatzetik oso urrun dago, eta segregazio horiek guztiek hor jarraitzen dute. Beste segregazioak ere badaudelako, aniztasun funtzionalekin edo desgaitasunekin zerikusia dutenak, genero-arekin... Oraindik badira diru publikoa jaso eta generoaren arabera segregatzen duten ikastetxeak, eta onartezina da.

Euskal jendarteak badaki hezkuntzak hezkidetzaillea izan beharko duela gutxienez, ez bada feminista; euskal kulturaren transmisioaren ber-

mea izan beharko duela; bada-ki haurra edo ikaslea erdigunean jarri beharko duela... Halako gauzak badakizki, eskaera horiek gaurko jendartearen daude, garai batean agian ez bezala. Beraz, nazio akordio baten premia nabarmena da, eta beharra gero eta sektore gehiagotan atzematen da.

Hasieran pandemiak aipamena egin duzu, eta liburuan nabarmen duzu hezkuntzan izandako aldaketa askoren jatorrian pandemiak izan direla. Orain pairatzen dugun honek zer ondorio utziko du?

Bi izan daitezke: bat negatiboa eta bertzea positiboa. Pribatizazio nahikeria bat bazegoen aurretik, kapitalismo digitalaren baitan bazetorren nahi bat, eta izugarri azkartu da pandemiaren ondorioz. Bat-batean, hezitzaileok baliabiderik gabe ikusi ditugulako gure

«Murgiltze eredua ezinbestekoa da. Alemanian ez lukete inondik ere ezbaian jarriko alemana bermatu behar ote den, eta Euskal Herrian gauza horiek ezbaian jartzen ditugunean espazio handia galtzen dugu, edo bertze norbaiti oparitzen diogu»



buruak, ez daukagulako sare digital publiko bat, ez daudelako irakaskuntza bideratzeko tresna horiek guztiak... hor negozio esparru berri bat ikusi du. Lehenagotik neoliberalismoaren esku-hartze bat bazetorren, orain merkatu handi bat ikusi du. Googlek, Microsoftek eta horiek sekulako esku-hartzea egin dute eta hori pribatizazio bat da, berdin zait sare publikoan, kontzertatuan, ikastolan..., hori gertatzen ari da.



Eta positiboa, zaintzaren eta elkar zaintzaren garrantzia zenbaterainokoa den ikasi dugula, eta ondorioz komunitarismoari bertze balio bat ematen zaiola. Ez dakit hazi bat erein den, loratzen hasi den edo balioan jarri den, baina, edonola ere, uste dut horrek ekarpen handia egin diezaie-keela hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuei.



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



TXIKITOK TEKNIKA BERRIAK IKASI BEHAR DITU, ADIBIDEZ...



Zen, da eta balitz

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Ederra da Erika Elizarik asmatuta-ko hitza: zendabalitz. Zen, da eta balitz. Izen bereko liburua beza-lakoxea, gozagarria. Hegazkina, daramagun ziztuaren irudi. Bidaiakide ezezagunen bizitzak irudikatzeko jolasa, gauzatuta. Nor ez da jostatu horretara?

ZEN. Nolakoa zen iragan joana? Argazkiz betetako kaxa batean esploratzen hasi naiz kasik duela urte erdi hil zen osabaren etxean (agur, *monsieur*, maitasun pila. Ateraldiren bat izanen zenuen parentesi hauek umore beltzez betetzeko, seguru nago). Zure usaina duen etxera egindako bisita bakoitzean irudi sorta bati begiratzen diot, mantso-mantso, eta tentuz uzten ditut gero argazkiak

zeuden tokian, inauterietako Momo erregea, soldaduskako mina eta komunioko inozentzia nahasten diren anabasan. Segituan ezagutu zaituztet osabak, begiradak, keinuak mantentzen direlako. Hara! Gu ere hemen gaude, Andaluziara, Parisera eta makina bat landetxetara egindako bidaietan. Segida bat ikusi dut, lotzen gaituen hari bat. Ezagutu ez nuen aitatziren irudi bakarra nuen buruan orain arte, argazki batekoa, orain mugimendua eman ahal izan diot irudi gehiago ikusita. Gutxi ezagutu nuen amatxiren oroitzapenak ere aberastu ditut. Hurbil sentitu naiz. Albumen funtzioaz galdezka ibili naiz nire buruari, eta horixe izan daiteke bat.

DA. Zer gelditzen da? Zer gordetzen dut? Zer ateratzen diot egun bakoitzari? Zerk pizten nau? Zein da nire berezitasuna eta ekarpena? Argazkilariaren eta erretratatuaren pertsonaren begiraden artean gertatzen den txispa klik bat da ZEN bihurtu aitzinetik.

BALITZ. Sute bat gertatuko balitz, zer objektu salbatuko nuke etxetik? Zerk merezi du? Doraemonen denboraren makinan etorkizunera bidaiatzerik bazu, egingen nuke? Zer ikusiko nuke? Hariak jarraitzea eta hobetzea espero dut. Bertze arkanbele kanta batzuk aditzea. Umore onik ez faltatzea. Zen, da eta balitz. Beti da «zendabalitz». Eta hitzak lasetitzen nau. •

Aingeruen sexua

**Xabier Mikel
Errekondo**

Sexuaren eta maitasunaren inguruan gezur parrastada galantak iltzatu zizkiguten buruan. Maitasuna zerutarra, barneraketa soilik Jainkoak agindua haurrak ekartzeko eta sexua bekatu. Guri bainoago gure arbasoei, baina bada gure artean oraindik zerutar apostoluek eragin kalteen orbanik. Uste baino zabalduagoa.

Erligioen eragina ez da garai batekoa, ez. Ostera, milurteko berrian ongia/gaizkiaren lege zaharra presente dago, bai, baita gizarte “aurreratu eta aske” honetan ere. Beste modu batera, arauak bete egin behar ditugula agintzen eta publizitatzen digute aginta-

riek; horra apeza eta polizia zintzo/bekatari dikotomiaren zaindari.

Horregatik, beharbada, nire belarri-mina zintzotasuna aldarrikatzen entzuten dudana bakoitzean.

Sinetsita dugu pertsona askeak garelako... ezarri mugen barruan, eta ez gara konturatzen albo kalteak muinetaraino ditugula sartuak norberak limiteak jartzearaino. Koitaduak gu, koitoan edo edozelako sexu praktikan zintzo/bekatari mugaren txarrantxa artean gabiltzanak.

Nago, baina, ariketarik osasuntsuenetakoa badela besteek eta ondoren geuk geure buruari ezarri arau eta mugez ha-

raindiko ibilbidea. Kontrara, uzkurtuta bizi ditugu maitasuna eta sexua. Ez alda ba oso kezkatzekoa oraindik gure artean bertan klitoria non dagoen ez dakienik izatea edo orgasmorik izan ez duten uste baino emakume eta gizon heldu gehiago egotea? Irakurri bestela “7K” aldizkaria (2015/03/03) edo Elisa Brune eta Yves Ferroulen “El secreto de las mujeres. Claves científicas de la sexualidad femenina” liburu argigarria.

Bandoa: badator aingeruen matxindada, zerua gurtu baino nahiago mugak apurtu eta gorputza egurtu erromatar mahats-zuku-orgia lizunean.

Ibili zintzo demonio! •



> Elkartasuna ardo kutxetan



NAIZ+

Etxeratek «ardoaren kanpaina» abiatu du aurten ere, euskal errepresaliatuen senide eta lagunei beren bidaietan laguntzeko helburuarekin. Elkartasunez beteriko ardo kutxak salduko ditu, senideentzat hain



berezia den Gabon garaiaren hasierarako hilabete eskas falta dela. «Euskal mahastizainen ardo ekologikoei esker, Eguberri honetan Euskal Herriko kalitatezko ardoaz disfrutatu ahalko dugu berriz ere», azpimarratu

du euskal presoen senide eta lagunen elkarteak bideo batean. Belen Aurrekoetxea elkarte-ko kidea agertzen da bertan. Berak aurkezten du elikadura burujabetzaren alde lanean ari diren etxalde txikietan ekoiztutako ardoa saltzea xede duen kanpaina, «senide zein lagunei haien bidaietan laguntzeko helburuarekin». «Eskuratu euskal ardogileen ardo kutxa eta egin dezagun topa errepresaliatu guztiengatik eta gugatik ere», nabarmentzen du Aurrekoetxeak, iaz ardoa erosi zuten herritar guztiei eskerrak emateaz gain. «Asko eskertu genuen iaz zuengandik jasotako elkartasun guztia, eskerrik asko bihotz-bihotzez. Horregatik ari gara berriro ere martxan, zuen elkartasuna gure motorra delako», aitortu du. “Depositoak bete elkartasun” dinamikari jarraipena emanez jarri zuen Etxeratek abian “Urrun daudenengatik, topa!” lelopeko ekimena, «senide eta lagunei laguntza eta babeska eskaintzeaz harago, beharrian ekonomiko hauek asetzeko»..



> Marlaskaren «grina» bikoitza

Fernando Grande-Marlaska Barne ministro eta Auzitegi Nazionaleko epaile ohiak txakurrenganako «grina» sentitzen duela aitortu zuen astelehenean, gauza jakina bazen ere. Debozio hori hain handia izanik, Guardia Zibilak bere operazioetan erabilitako txakur-errentzako kondekorazio bat



propioa sortzea erabaki zuen, eta astelehenean saritu zituzten lehenak Barne ministroa bera buru izan zuen ekitaldian. «Gaur, merezi duen tokian jartzen ari gara Guardia Zibilaren zerbitzura dauden ehunka txakurren lan eta dedikazioa; azken finean, herritarren eta gizartearen zerbitzura daude», esan zuen Grande-Marlaskak.



> Lantokietan euskararen presentzia ezagutzeko tresna

Enpresetan euskarak duen presentzia era erraz batean ezagutzeko tresna garatu dute Laneki Elkartek eta Gipuzkoako Diputazioak «LH Duala euskaraz» programaren barruan, Lanbide Heziketa gero eta euskaldunago batek lantokietan behar duen segida bultzatzea helburu.

Euskara maila neurtzeko tresna hori autodiagnostikoa era erraz batean egiteko pen-



tsatuta dago, 30 galdera laburrez osatutako galdetegi bat erantzunez. Galdetegia «bost minututan» bete daiteke eta emaitzen arabera balorazioa egin, «enpresan euskarak duen presentzia ezagutzeko aurreneko gerturatze bat egiteko».

Interneten eskuragarri dagoen tresna horrek lau aldagai ditu kontuan: harrera, lantokian dagoen hizkuntza paisaia, lan-kideak eta instruktoreak.

> Maria Josefa Sansberrori aitortza Oartzunen

Joan den larunbatean Oartzungo Udalak Maria Josefa Sansberro Etxeberrira omentzeko antolatutako ekitaldi instituzionala izan zen, «memoria berreskuratzen eta gertatutakoa aitortzen eraiki nahi dugulako bizikidetz».

Maddi Sansberro oartzuarak, alkateak esan zuenez, «bere ekintzekin erakutsi zuen emakume indartsu, ausarta eta borrokalaria zela. Bizitza duin eta gizarte justuago batengatik eman zuen bizitza».



Maria Josefa Sansberro Senperera joan zen umetan familiarekin. II. Mundu Gerran, nazien kontrako erresistentziako kide izan zen; hasieran, juduei muga pasatzen laguntzen, eta ondoren, beste eginkizun batzuetan ere bai. 1944an, atxilotu eta deportatu egin zuten Marie-Jeanne Etxeberrira ilobarekin batera. Alemaniako hainbat kontzentrazio eremutan esklabo lanetan aritu ondoren, Saschenhausengo kontzentrazio eremuan hil zen.



> Gabonetako Loteria espainolaren iragarkia, Baztanen

Baztango herri txiki elurrez estali bat Gabonetako Loteria espainolaren dezimoz bete da modu misteriotsu eta anonimoan, auzokideen arteko eskuzabaltasun kate bat sortuz.

Gabonetako Loterien kanpaina berriaren iragarkia Baztanen filmatu zen, eta “La trinchera infinita” eta “Handia” filmen zuzendari Aitor Arregi, Jon Ga-

raño eta Jose Mari Goenagak egin dute. Iragarkian, familiek eta lagunek saria eurekin ospatu nahi duten ezezagunen dezi-moak jasotzen dituzte.

Moriarti ekoiztetxeko zinemagileek azaldu dute Baztan bere ingurune eta arkitekturgatik aukeratu zutela, «oso kostunbrista» delako baina aldi berean fantasia kutsua duelako.





Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Abortua(k)

Gertukoek inspiratzen naute edo ni inspiratzen naiz beraiekin. Eta gaurko gaia hona ekartzea ez da kasualitatea. Gertu bizi dudana esperientzia bat da eta lerro batzuk eskaintzea erabaki dut. Oso gutxi izendatzen da hitza eta gaiaz oso gutxi esaten da, publikoki honi buruz entzuten dena epaiz beteriko komentarioak izaten dira. Polemikaz inguraturik dagoen gaia da: abortua.

Egoera eta arrazoi desberdinengatik gertatzen den arren, guztiek badute amankomuna den ezaugarri bat: gertatzen zaionaren errua. Izugarria da erruak gudan duen indarra eta eragina, emakumetzat jo gaituztenentzat eta garenentzat behintzat. Barruraino sartzen da eta guztia manipulatu eta kutsatzeko gai da. Lan handia egin dute batzuek hau hala izateko, gure erabakiek zilegitasunik ez dutela azpimarratzeko, pertsona gaiztoak garela errepikatzeko, zigorrarekin behin eta berriro mehatxatuz eta mehatxua beteaz. Baina batzuetan, ez da erabaki bat izaten, gertatu egiten da, gertatu egiten zaigu. Eta ez pentsa kasu honetan errua oporretara joaten denik, hor dago ate joka eta oso zaila da honi kasu ez egitea, atea jotzeko dohain izugarria baitu eta honetan profesionala baita.

Gutxi hitz egiten digute eta dugu gertaera honi buruz. Kontatu dizkiguten ipuinetako batean, umetokia dugunok oso azkar ekar dezakegu bizia mundu honetara. Nerabeak garenan, kontuz haurdun geratzearekin; prebentzioa eta beldurra. Fase hau amaitzean, "ez duzu ama izan nahi?" etapa dator; presioa eta epaia. Eta ondoren, zaharregia zara horretara jo lasteko, ikusezina bihurtzen zara...

Haurdun geratzeko erabaki bat izango balitz bezala; nahi baduzu ahal duzu. Gezurra. Gezur honek izugarritzko mina sor dezake eta sortzen du. Nahi badut, ahal dut pentsatzean... ez badut lortzen zeinena da errua? Nirea. Ez nago ondo egina, ez dut balio, ez dut merezi, puskatua nago. Eta hona hemen erruarentzat energia goxo-goxoa.

Demagun haurdun gaudela, gertatu dela. Gure beste sinismen bat sartzen da jokoan, geratu banaiz, jaioko da. Eta hau ere, gezurra. Gezurra, ez delako beti gertatzen eta gainera, askotan gertatzen delako prozesuan etete bat, sortzen ari denaren gelditze bat, abortua. Eta ez zaie haiei gertatzen, gertatzen zaigu, askori. Baina ez da esaten, porrota izan delako. Gure ekinean porrot egin dugulako, gure errua izan delako, zer-

bait gaizki egingo genuelako, ez dugulako merezi... guregatik izan da. Errudun garelako. Gezurra.

Nahikoa da. Errua Elizarentzat. Nahikoa da honetaz ez hitz egiteaz; gertatzen zaigula esateak izugarritzko onura dakar, elkar uler dezakegu, mina konpartitzen dugu eta hori iraultza egitea da. Batzuetan gertatu egiten da, zaigu. Dena ondo doanean ere, gerta daiteke. Dena ez dagoelako gure esku, ezin dugu kontrolatu eta ez da gure errua. Gure aldetik ahal duguna egitea dago gure esku, baina ahaztu gabe guztia ez dagoela horren mende. Beste aldagai batzuk ere jokoan sartzen dira, ez gara gu bakarrik. Gertatzen da, gertatzen zaigu, bada, hitz egin dezagun. Guk beste kontakizun bat sortzeko gaitasuna dugulako eta honek guztiengan eragina izango duelako. •



Lan handia egin dute batzuek gure erabakiek zilegitasunik ez dutela azpimarratzeko.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



VALENTIN ZUBIAURRE. BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

ZUBIAURRETARRAK, KAMERA AURREAN ETA ATZEAN

Zubiaurre anaiak, Ramon eta Valentin, Bizkaiko Garai herrikoak, artista margolariak eta argazkilari amateurak izan ziren. 1899 eta 1901 artean lau album sortu zituzten Euskal Herriko argazkiekin. Album horiek ez ziren familiakoak bakarrik; erretratuak erakustez gain, istorioak kontatzen zituzten eta beren bidaiak eta oporretako egonaldiak dokumentatzen zituzten, batez ere Bizkai eta Gipuzkoakoak. Argazki kamerak bi anaiak erabiltzen zituzten bereizi gabe. 1928 inguruan, zubiaurretarrak hainbat film egin zituzten modu amateuran, beren argazki albumak egiteko erregistro bera erabiliz: istorioak kontatu eta bidaiak dokumentatzea. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1901ean Mutrikuko Saturraran hondartzan egina da. Egilea Valentin izan zen; haren anaia Ramon lurrean ageri da, kamerari begira, eta haren arreba Pilar bi lagun ondoan dago, tripode batean eutsitako beste argazki kamera batekin kliska egiten.

TXOMIN

aurrera bolie!

Jokin Urainen liburua

**TXOMIN
ITURBEREN
BIOGRAFIA**

Garai ilunetan independentziaren alde zapalkuntzari aurre egin zion gazte belaunaldi bateko ekintzaile eta buruzagi karismatikoenetako baten bizitza.



**GARArekin
hilaren
27 eta 28an,
larunbat eta
igandean,
kioskoetan**

IZAERA, KLANDESTINITATEA,
JAZARPENA, DEPORTAZIOA,
ELKARRIZKETAK, HERIOTZA ALJERIAN...
LEKUKO ZUZENEN TESTIGANTZEKIN
KONTATUA

ARGAZKIEKIN ILUSTRATUA

GARA

20 euro

Harpidedunentzako
eskaintza berezia:

**18,50
euro***

* Erreserbatu zure alea igorri dizugun e-mailari erantzunez. Etxera eramango dizugu, bidalketa gasturik gabe.

